

Herririk Herri |3|

Gehiengo sindikalak oso ontzat jo du martitzeneko grebaren erantzuna

Ekonomia |10|

Elixeko beharginek greba mugagabea atzeratu dute, akordioa sinatzeko zain



Berbaz |9|

Iñigo Lamarca: "Liburuan gogoeta egin gura nuen, bizipenak kontatuz"

Zalloventa "atoan" ixteko agindu du Jaurlaritzak

> Auzitegi Gorenaren epaia betearaztea agindu dio Zalloventa harrobiari Eusko Jaurlaritzak

> Ingurua lehengoratzeko plana aurkeztu beharko du orain Mañariko harrobiak

6



Ondare Ibilbidea jendaurrean aurkeztu du asteon Udalak

Elorrio• Eskualdeko zein Eloorrioko hainbat udal ordezkari elkartu ziren eguaztenean Ondare Ibilbidearen aurkezpenean. Herriko ondare ugariak lotzen dituen ibilbidea jarraitzeko harlauzak ipini dituzte. Udaletxe aurrean egin zuten eguazteneko inaugurazio ekitaldiko lehenengo geldialdia. Toti Martinez de Lezea idazleak sortu ditu ibilbidea azaltzen duten audio-giden testuak. Euskarazko atala Jesus Eguzkizarren ardura izan da. Ibilbide historiko-kulturala turistentzat ez eze herritarrentzat ere badela azaldu zuten, gainera, aurkezpenean bildutako udal ordezkariak.

2



Juanra de la Cruz

•Abadiño

Independienteen aurrekontuak ez ditu onartu oposizioak

4

•Berriz

Udalean euskara sustatzeko plan pilotua martxan jarri dute

6

•Otxandio

Mirugainek Pirinioetara irteera antolatu du astebururako

3

•Zaldibar

Olio birziklatzeko sistema berria martxan ipini dute

8

IURRETA INSTITUTUA
Eusko Herriko Lanbide-Heziketa-Heziketa Institutua

Matrikula zabalik **Uztailaren 7tik 13ra**

Tel.: 944.66.88.00 • www.iurreta-institutua.net • 014950aa@hezkuntza.net

HERRIRIK HERRI >

ELORRIO

Urratsez urrats, Elorrioko altxorak bistaratuko dituen Ondare Ibilbidea

Eguaztenean inauguratu zuten herriko ondarea baliatuz antolatu duten ibilbide historiko-kulturala

Udan sartu berri eta Balendi Berrio-Otxoa egunaren atarian, udalak Ondare Ibilbidea inauguratu zuen eguaztenean. Herriko ondare ugariak (jauregiak, gurutzeak, dorretxeak, komentua, basilika...) lotzen ditu Elorrio inguratan duen ibilbideak, eta horien berri jaso ahalko da tokian tokiko plaka informatiboen bitartez zein udaltzaingoaan eskuragarri dauden audio-gidekin (euskaraz, gaztelaraz, ingelesez eta katalanez).

Ibilbidearen norabidea zoruan jositako harlauza gorriek adieraziko dute. Elorrioko Udale-

ko logoaz jantzitako 31 harlauza gorriak ondare bakoitzaren ondoan daude kokatuta; Udalteixe parean lehenengoa. Handik Erreka kalean zehar zuzentzen du ibilbideak bisitaria, batez ere, Erdi Aroagaz lotutako altxorak bistaratu. Berrio-Otxoa kaletik gorako zatiak, berriz, XVI. mendean murgilduko du interesatua.

Eguaztenean aurkezpen ekitaldian, udal ordezkariak gainera, audio-giden gaztelarazko eta euskarazko bertsoak atondu dituzten Toti Martinez de Lezea eta Jesus Eguzkiza, eta Aldundiko ordezkari Joseba Ugarte egon ziren. Niko Moreno alkateak eta Cristina Sierra turismo arloko zinegotziak proiektuan parte hartu duten lagun guztiak gogoratu zituzten, esker ona adieraziz. Ondare Ibilbidea "turistentzat beste bertako jen-



Aurkezpen ekitaldira batutako guztiak Ondare Ibilbideko zati bat osatu zuten. Juanra de la Cruz

Ibilbidea turistentzat ez eze herritarrentzat ere badela adierazi zuten aurkezpenean

dearentzat ere" badela adierazi zuten. Era berean, ibilbideak "bertako jatetxeak, tabernak, kaleak eta biztanleak" ezagutzeko aukera ere eskainiko dio bisitariari.

Audio-gidek ondarearen berri emango dute, modu erraz eta entretenigarrian (bertsoak, anek-

dotak, kuriositateak...). Horrela, ibilbideak Elorrioko historian zeharreko bidaia ere proposatzen du. Toti Martinez de Lezeak testuak osatzea "plazerra" izan dela adierazi zuen, eta testuak mugatuak ez balira nobela bat idatziko zuela. Jesus Eguzkizak euskaraz-

ko testuak lantzerakoan turistak ezeze herritarrak ere kontuan hartu zituen: "Herria maitatu ez ezik, bere iragana ezagutu ere egin behar dugu". ■ J.D.

> bideoa ikusgai
www.anboto.org-en

Manifestazioa egingo dute gaur Zabarteren egoera salatzen

Felix Zabarteren egoera salatuz, Herriko Plazatik abiatuko da manifestazioa

Uztailaren 2an, Felix Zabarte preso politiko elorriarrak 25 urte egingo ditu kartzelan, eta joan zen barikuan 200 bat elorriarrek agerraldia egin zuten plazan, "bizi osorako espetxe zigorra" salatu eta

Zabarteri Parot doktrina aplikatu zioten eta kartzela zigor osoa betetzen dabil

prestatu dituzten ekimenak jakinarazteko. Zabarteren betiko lagunek ere testu bat irakurri zuten, bera gogoratuz.

Zabarteri Parot doktrina aplikatu zioten, eta ondorioz kartzel-

la zigor osoa betetzen ari da gaur egun. Kubati ere egoera berean dagoela gogoratu zuten. "Giza sufrimenduan oinarritutako espetxe politika honegaz etekin politikoak lortzea dute helburu", salatu zuten.

Ildo horretan, gaur bertan, 19:30ean, manifestazioa deitu dute Elorrioko plazatik irtenda *Bizi osorako espetxe zigorrak ez* lelopean. Atzo, berriz, Zabarteren egoera salatzen duen mozioa aurkeztu zuten Elorrioko ez ohiko udalbatzarrean. Ekitaldien artean, joan zen asteburuan egindako mendi martxa ere badago.

Bihar, 08:00etan, San Agustindik Zornotzara abiatuko dira Gatzaren egoera ere salatu asmoz

Jendaurreko agerraldian gogoratu zuten, Jose Mari Sagardui "Gatza" preso politiko zornotzara kartzelan denborarik gehien daraman preso da: guztira, 30 urte. Bere egoera salatzen, uztailaren 3an Bizkaitik hiru ibilaldi abiatuko dira Zornotzarantz, eta horietako bat Elorrioko San Agustin auzotik irtengo da, goizeko 08:00etan. Ondoren, 13:30 inguruan ekitaldia egingo dute Zornotzan. ■ J.D.

Berrio-Otxoa Eguna ospatuko dute asteburuan

Gaur ekingo diete Berrio-Otxoa Egunean ekitaldiei. 16:00etatik 20:00etara herriko literatura kalea eta elorriarregana hurreratu duen *Liburutegia kalera!* ekimena burutuko dute herriko zehar. Bihar, berriz, Musikaireko egitarauaren barruan, Cheymocheko taldeak *Oua Umplute* musika kontzertuagaz gozatu ahalko da, 22:30etan, plazan.

Domekan, Berrio-Otxoa egunean, 12:00etako meza nagusiaren ondoren, luntxa egingo dute plazan, Kukubarre seikoteak ekimenari musika ipiniko diolarik. 18:00etan pilota partiduak hasiko dira plazako frontoian, eta 19:00etan Musikairek Pirritx, Porrot eta Marimototsen mundu alai hurreratu digu. Ondoren, 20:00etan, Berrio-Otxoa abesbatzak eta Algortako abesbatzak kontzertua eskainiko dute Santa Anan.

Datorren zapatuan parapente kontzentrazioa egingo dute, eta baita partida azkarren xake txapelketa ere plazan.

Amaitzeko, datorren domekan Durangaldeko Azoka Ekologikoa egingo dute. ■ J.D.



Elorrioko plazan egin zuten prentsaurrekoa joan zen bariku arratsaldean.



ABADIÑO

Oposizioko alderdiak udal aurrekontu proposamenaren kontra

Gobernuaren aurrekontu proposamenaren kontra bozkatu zuten jeltzaleek eta Ezker Abertzaleak

Astehenekoko udalbatzarrerara eroan zuen 2010 urte honetarako udal aurrekontu proposamena Talde Independententeko gobernuak: guztira, aurten udalean hamaika milioi euro kudeatzea aurreikusten zuen proposamenak.

Euren desadostasuna sakonekoa eta oinarrizkoa dela dio Ezker Abertzaleak

Udal gobernuaren kudeaketaren dinamikagazko oinarrizko desadostasuna argudiatu zuen Ezker Abertzaleko bozeroaleak kontrako botoa arrazoitzeko: "aurrekontuko atal bakoitza banan-banan aztertzeraz sartu barik, funtsezkoa da gure desadostasuna", azaldu du Basauri zinegotziak. Udala kudeatzeko gobernuak dituen joeretan aldaketa kualitatiborik gertatzen ez den

bitartean eta "udalaren kudeaketaren oinarria sendotzeko pausorik emateko borondaterik ez dagoen" bitartean, gobernuaren proposamenari ezin diotela babesik eman dio Ezker Abertzaleak.

Martxoan eta apirilean gobernuagaz aurrekontuen inguruko negoziatioetan jardun duten jeltzaleek ere aurrekontuen kontrako botoa eman zuten astehenekoko udalbatzarrean. Axier Garate bozeramailearen berbetan, "aurrekontu arduragabea" irizten baitiote: Garatek nabarmendu duenez, "bizi dugun sasoiaren, udalaren diru-sarrerak murriztuko direla badakigunean, ezin daiteke gastuarrunta mantentzen duen aurrekontu bat osatu". ■ I.E.

Gastua txikitu beharra nabarmendu dute jeltzaleek kontrako botoa emateko

OTXANDIO

Asteburuan Pirinioetara irteera Mirugainen eskutik

Mendigoizale elkarteak Midi d'Ossau eta Anayet mendietara abiatuko dira asteburuan

Urteroko ohiturari eutsiz, uztaila lehenengo asteburuan irteera antolatuko du Mirugain mendigoizale elkarteak. Aurten Pirinioetara joango dira izena eman duten 22 lagunak. Gaur goizaldean irten dira eta domeka iluntzean itzuliko dira. Bihar, Midi d'Ossau mendiarantz zeharkaldia egingo diote. Domekan, gura duenak Anayet mendiarantz zeharkaldia egin ahaliko du; Formigal aldetik irten eta Candanchu inguruan amaituko dute (6-7 orduko ibilaldiak).

Kasualitatez, aurten ekimean parte hartuko duten guztiak

Mirugaineko bazkideak dira, baina "gura duen guztiak" joan daitezkeela azaldu du Tomas Agirre Mirugaineko kideak.

Irailean, Iparraldera

Irailean beste irteera bat antolatuko dute Iparraldera. Oraindik ez dute zehaztu nora, baina batzarretan kostaldeko ibilaldiren bat antolatzeko ideia erabili dute. ■ J.D.

Anayeteko ibilaldia Formigal aldetik hasi eta Candanchú aldean amaituko dute

DURANGALDEA

Gehiengo sindikalak oso ontzat jo du joan den martitzeneko greba

Durangaldean grebak jarraipen "zabala" izan zuela diote greba deitzaileek



Durangon ehunka lagun bildu zen manifestazioan, grebagaz bat eginez.

Grebaren erantzunagaz "oso pozik" daudela azaldu du gehiengo sindikalak (ELA, LAB, EHNE, STEE/EILAS eta HIRU). Sindikatuek jakitera eman dutenez, ekainaren 29ko grebak jarraipen "zabala" izan du eskualdean. Industriari begira % 85 irten dela kalera jakinarazi dute. Zerbitzuetan %95eko eragina izan du eskualdean saltoki handi eta txikietan. Administrazioan %90-95eko emaitza "oso ona" izan dela gaineratu dute. Industriari begira, enpresa batzuk lehenengo orduetik, goizeko seietatik, itxita egon dira Inyec-

tametal (Abadiño) edo Lince (Elorri). "Beste batzuetan enpresa zabaldu arren konturatzen ginen barruan zegoen jende kopurua oso txikia zela", azaldu du Laida Zubillaga LABeko kideak.

Berrizen eta Atxondon jaiak zirenez, grebagaz bat eginez lanuzteak egitea eskatu zuten goizean eta arratsaldean. Erantzuna,

Industrian %85eko jarraipena izan duela grebak azaldu dute sindikatuetako ordezkariak

tabernen aldetik, oso ona izan dela azaldu du LABek.

Durangon sindikatuek arratsaldeko 17:30erako deitutako manifestazioa "jendetsua" izan zen. Sindikatuen arabera, 1.200 lagun bildu ziren. Elorri manifestazioa arratsaldeko 19:00etan egin zuten.

Durango Udalean udalbatzara deituta zegoen. "Grega orokorra izanda eta eskualdean dena itxita zegoela, ez genion iritzizentzuzkoa zenik plenoa egitea, eta bertara joan ginen. Bertan behera utzi zuten", dio ELAK. ■ J.G.



Elorri ere hainbat lagun batu zen manifestazioan.

Durangaldeko Baserritarren Elkarteak

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

A Urreta

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Ainara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 108. Elkargokidea

DURANGO

Euskal Harley Eguna asteburuan, +Dendak elkarteak antolatuta

Gaurtik domekara, estatu osotik etorritako harley zaleek Durangoko kaleak hartuko dituzte

Motorhotsak hartuko ditu Durangoko kaleak gaur hasi eta domekara bitartean. +Dendakek, hainbat elkarte eta erakunderen laguntzagaz, antolatutako II. Euskal Harley Egunak estatu osotik etorriko harley zaleak hartuko ditu.

Gaur 19:30ean egingo dute inaugurazio ekitaldia, Landako erakustazokan. 21:00etan Landakon bertan afalduko dute, eta segidan DJ Rebel Rocker-en musikak girotuko du ekitaldia. Gauerdian Senegalgo batukada talde baten laguntzagaz egingo dute erakustazokatik Alde Zaharrerako bidea.

Bihar Landako gunean doan gosaldur ondoren, motor irteera egingo dute; domekan ere irten-

go dira ordu berean; Batean Bilbo inguruak bisitatuko dituzte eta bestean Lekeitioko kostaldea ezagutuko dute.

Bihar, 11:00etan gaztetxoiei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egingo dituzte. Iluntzean, Eusko Labelek erretako txahala

Besteak beste, gaztetxoiei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak gauzatuko dituzte

afaldu ondoren, antortzen kalejiran irtengo dira, hildako motorzaleak oroituz. Gauari Reverendo Parkerren musikak emango dio jarraipena.

Domekan, jaialdiari amaiera eman aurretik, 13:00ak inguruan, txakolin dastaketa egingo dute.

Asteburu osoan moto-egileen erakusketa ere antolatuko dute Landako erakustazokan. ■ J.D

Gaur, 19:30ean, egingo dute inaugurazio ekitaldia, Landako Erakustazokan



Bilbo eta Lekeitio inguruak bisitatuko dituzte irteera banatan.

Hizkuntza Eskola Ofizialean izena emateko aukera uztailean

Aurten uztailaren 1etik 20ra bitartean eman daiteke izena Hizkuntza Eskolan

Normalean Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialean izena emateko aukera irailera arte egoten da, baina aurten uztailean bakarrik eman ahalko da: uztailaren 1etik 20ra, hain zuzen ere. Matrikulak Internet bidez egin beharko dira www.eoidurango.net helbidean. Euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana dira aukeran dauden hizkuntzak.

Iaz ere Hizkuntza Eskolan ibili diren ikasleak tokia segurtatuta dute. Berriek balorazioa izango dute aurrez zehaztutako baldintzen arabera (familia ugaria, gutxitasun fisikoa...). Punturik gehien daukatenek lortuko dute lekua.

Puntu kopuru bera dutenekin, zozketa egingo dute notario baten aurrean, eta han erabakiko dute alfabetoko zer hizkitik aurrera hasiko diren plazak banatzen.

Hainbat mailatan 25 ingeles talde, euskarako 22, frantseseko 15 eta alemaneko 8 daude aukeran (gehienez, 25 ikaslekoak). "Ingeles ikasleek kopuru osoaren %50 osatzen dute, gutxi gorabehera", azaldu du Asun Elorriaga Hizkuntza Eskolako zuzendariak. Osatu bako taldeetan izena emateko aukera emango dute gerora. Interesatuei zenbaki bat eman eta horren arabera banatuko dituzte plaza horiek. ■ J.D.



Aldun nagusiaz gainera, eskualdeko hainbat alkate etorri zen aurkezpenera.

Durangaldeko errepide sare berriak maketetan ikusgai San Agustinen

Aldundiak 2011n hasiko dituen hiru proiekturen erakusketa zabaldu dute

Jose Luis Bilbao Bizkaiko aldu nagusiak Durangaldean egingo dituzten errepide erradial berrien gaineko xehetasunak eman zituen joan zen barikuan. Horregaz batera, azpiegitura berrien gaineko erakusketa ere zabaldu zuten San Agustin kulturgunean. Gauzatuko dituzten hiru proiekturen datuek eta maketek osatzen dute erakusketa: Gerediaga-Elorrio lotura, A8 autopistako sarrera-irteerak Gerediaga eta Ermuko saihebidetara.

Erakusketa egunero egongo da zabalik, uztailaren 11ra arte; goizetan 11:00etatik 13:00etara bitartean eta arratsaldetan 17:00etatik 20:00etara.

Jose Luis Bilbao: "Hiru proiektuak aurten ipiniko ditugu lehiaketan eta 2011n hasiko dituzte"

Gerediaga-Elorrio lotura, A8ko sarrera-irteerak eta Ermuko saihebidetara egiteak 400 milioi euroko aurrekontua izango du

Lan guztiek 400 milioi euroko aurrekontua daukatela azaldu zuen aldu nagusiak, eta "aurten go urte amaieran ipiniko ditugu lehiaketa publikoan; horretara, 2011n lanak hasiko dituzte".

Gerediaga A8 autopistatik irteteko egingo duten azpiegitura berria egingo dute, "Berrizera eta Elorriorako irteerak erraztuko dituen". Horrez gainera, Iurretatik Gerediagaraino hirugarren erreia egiten dihardute.

Gerediaga-Elorrio tartea Elorrioko saihebidetara helduko da. Bidean, Gaztelua (1.959 metroko tunelaren bitartez) eta Muntzarazko lotune osoa zeharkatuko ditu, besteak beste. ■ J.D

GARAI

Garaizartik San Juanerako bidea konponduko dute

Joan zen udazkenean euriteen ondorioz hondoratu zen errepide zatia konponduko dute

Iurretako Garaizartik Garaiko San Juanera doan errepidea konpondzeko akordioa heldu dira bi udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz. 56.500 euroko aurrekontua dauka egitasmoak, eta, adierazi dutenez, datozen egunetan hasiko dira lanok.

Joan zen urte amaieran hondatu zen bide hori, euriteen eraginez. Berez Iurretako bidea da, baina "batez ere garaitarrek erabiltzen" dutela-eta, Garaiko Udalak inbertituko du diru kopuru handiena. Dena dela, Aldundiaren laguntza izango du; izan ere,

errepidean kalteak sortu zirenean diru-laguntza eskatu zuten eta orain onartu egin dute eskaera hori. Diru-laguntza horrek aurrekontuaren %90 beteko du, eta Garaiko Udalak falta diren 6.000 euroak ipiniko ditu.

Gastuetan zuzenean parte hartu ez arren, "Iurretako Udala proiektua garatu, adjudikatu, zuzendu eta betetzera konprometitu da", Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu zuenez. Adjudikazioa eginda dago, eta horregatik txaroten dute lanak laster hasiko direla. ■ M.O.

Euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana dira hainbat mailatan eskainiko dituzten lau hizkuntzak

Izen-ematea Hizkuntza Eskola Ofizialean webgunearen bitartez egin beharko da: www.eoidurango.net



DOAKO FINANTZIAZIOA

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

BAUTISTA BEHERAPENAK

Orain, zure diruak gehiago balio du



www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

DIURRETA

Maiztegi eskolan obrak egingo dituzte abuztuan

Azken urteetan legez, aurten ere umeen eskolako udako opor garaian egingo ditu udalak Maiztegi herri ikastetxean zenbait konponketa. Urteroko moduan diruatal bat gorde du aurten ere udal gobernuak eskolan inbertitzeko: 55.000 euro inguruko inbertsioa egitea aurreikusitua da udal honetan azaldu du alkateak.

Eskolako komunak berrizteko lanak egiteko 55.000 euro inbertituko dituela eman du udal gobernuak jakitera

Aurreko urteetan, besteak beste, sukaldea edo berogailua berriztu dituzte Maiztegi herri eskolan. Datozen asteetan esleitu eta abuztuan burutu gura dituzten obren helburua eskolako komunak berriztea izango da. "Eskola publikoa ondo zaintzea" udal gobernuaren ezinbesteko egitekotzat daukatela udalean azpimarratu du Iñaki Totorikaguena alkateak, eta urtez urte behakuntza txikiak egiteko asmoagaz jarraituko dutela. ■ I.E.

DI MAÑARIA

Zalloventa harrobia ixteko agindu du Eusko Jaurlaritzak

Auzitegi Gorenaren epaia betearaztea agindu du energia eta meategien saileko zuzendariak

Auzitegi Gorenak ekainaren 9an eman zuen epaia betearazteko agindua jasotzen duen ebazpenaren berri eman zuen Eusko Jaurlaritzak atzo eguerdian: harrobiak zabaltzeko prozesu judizialak itxita—orain aste batzuk ezetsi zuen Gorenak Zalloventak itxieraren kontra aurkeztutako azkeneko errekursoa—harrobia ixtea agindu du Eusko Jaurlaritzak, asteon kaleratutako ebazpenean.

Oskar Zabalak, Eusko Jaurlaritzako energia eta meategien zuzendariak sinatutako ebazpenak, "erauzketa-jarduera berehala bertan behera uztea" agindu dio enpresa ustiatzaileari.


Ekainaren 28ko datagaz publikatutako ebazpenean, "ins-

talazioak eraisteko proiektua aurkezte" ere eskatu dio Jaurlaritzak Canteras y Hormigones Zalloventa S.A. enpresari.

Eraikuntza eraisteko proiektua eta gaur egun harrobiak hartzen duen ingurua lehengoratzeko plana aurkezteko, hilabeteko epea eman dio Energia eta Meategien Zuzendaritzak enpresari.

Aralarren oharra

Harrobiaren "itxiera, Mañariko herritar askok ustia ketaren kontra egin duten lanari eta presio politikoari esker" lortu dela azpimarratu du Aralar alderdiak. Jaurlaritzak "enpresari harrobiaren zaharberitze plana gauzatzeko agindu diezaioa" eskatu du, bestalde, Aralarrek. ■ I.E.



"Erauzketa-jarduera berehala uztea" da agindua. J.F.

DI BERRIZ

Udalean euskara sustatzeko plan pilotua

Udal beharginen artean euskara egoera informaletan gehiago erabiltzea izan dute helburu

Berrizko Udalak indarrean daukan euskararen erabilera sustatzeko planaren barruan, esperientzia pilotu aitzindaria egin dute udal

Lan honek emandako emaitzak "positibotzat" jo dituzte interesdunek

beharginen artean. Ikerketak beharginen arteko egoera informaletan euskara gehiago erabiltzea izan du helburu. Guztira, 21 beharginek hartu dute parte.

Eralan foroaren oinarriak erabiliz egin dute esperientzia, eta EHUko Psikologia fakultateak lantzen duen hiru saioretako metodologia erabili dute. Lehenengo informazioa eman, gero norberaren esku utzi besteekiko hartu-emanak zelakoak izatea gura duten zehaztea, eta amaitzeko zehaztutakoa praktikara eroan dute. Hasiarako hipotesia baieztatu egin dute: besteekiko hartu-emanetan rolak zehaztuz gero gatazkak murriztu eta erabilerak gora egiten du. Lanean jasotako emaitzak "positibotzat" jo dituzte. ■ G.A.

DI ATXONDO

Hirigintza Planeko lehenengo txostena, urrira arte aztergai

Udaletxean eskuratu daiteke txostena dagoeneko; ekarpenak emateko epea urrira arte luzatuko da

Udalak osoko bilkuran Hirigintza Planaren proposamena onartu arte ez da epe ofizialik zabalduko, baina dagoeneko txostena Udaletxean dago eskuragai. Epea zabaldu aurretik ekarpenak jasotzen hasi gura izan dute udal arduradunek, horrela, denboragehiagoz iritzi gehiago jasotzeko.

Iraileko osoko bilkuran aurreikusitako proposamena onartzea, eta Atxondoko alkate David Cobosek azaldu duenez, "osoko bilkuraren ondoren legeak ematen duen epea hasiko da; gutxienez, urrira arte iraungo du".

Txostenean herria garatzeko proposamen batzuk batu dituzte. Proposamenen artean honakoak daude: Artian, errepidearen beste aldean 5,5 hektarea industriarako birkalifikatzea, polikiroldegi bat egitea, eta Markoidan etxebizitzak eraikitzea. Herritarren iritziak batu gura dituzte orain, txostena moldatzeko. ■ A.U.

Epea ofizialki zabaldu aurretik egin daitezke ekarpenak, ahalik eta iritzi gehien jasotzeko

DI MALLABIA

Briska eta tute txapelketa jubilatuentzat

Briska eta tute txapelketa uztailaren 8an antolatuko dute jubilatuek. Ekitaldiei arratsaldeko 16:00etan ekingo diete. Bikote bakoitzak karta-jokoan duen abilezia erakusteko aukera izango du. Antolatzaileen esanetan, bazkideek bakarrik parte hartu ahal izango dute bi txapelketetan. Modalitate bakoitzean irabazleei 80na euro emango dizkiete, eta bigarrenei, berriz, 50na euroko saria.

Txokolate-jana arratsaldeko 18:00etan prestatuko dute parte-hartzaileentzat zein eta bertaraten diren guztientzat. Iaz ere eratu zituzten bi txapelketak, eta ondo irten ziren. ■ J.G.

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

ALBERDI

HARATEGIA HARATEGIA

DURANGO

Bertako okela

Aurretiaz prestatutako janariak

Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas

Alberdi Harategia

ALBERDI

prekozinatua



ZALDIBAR



Zaldibarko alkatea olio birziklatzeko makina erabiltzen.

Olio birziklatzeko sistema berria ipini dute Zaldibarren

Olio modu "eroso eta garbian" birziklatzeko bi makina ipini dituzte Olazarren eta Zaldua plazan

Zaldibarren etxeko olio birziklatzeko bi makina ipini ditu udalak, Olazar kalean eta Zaldua plazan. Idoia Mendiolagaray Zaldibarko alkateak azaldu duenez, "sistema berri honek gaz" olio "eroso eta garbi" birziklatu daiteke.

Zaldibarko Udalak herritarren artean 1.100 pote banatu ditu, Alde Zaharrean. Datoren egunean, Zaldibarko beste auzo batzuetan banatuko dituzte. Hala ere, alkateak adierazi duenez, herritarren batek etxean ontzia jasoko ez balu, Udaletxean jaso dezake. "Aho zabala duten ontzi gris horiek

makina berdeskan sartzen dira, eta beste ontzi garbi eta huts bat jasotzen du erabiltzaileak birziklatzen jarraitzeko", dio Zaldibarko alkateak. Beraz, makinan ezin da edozein ontzi sartu.

Zaldibarko alkateak adierazi duenez, "lehenago bi hilean behin furgoneta etortzen zen goizez. Makina hauekin, aldiz, bakoitzak nahi duenean birziklatu dezake. Gainera, itxiera hermetikoa daukate eta olio isurtzea ekiditen du". Bestalde, alkateak gogora dakarrenez, "birziklatzea garrantzitsua da litro bat olio erabilik mila litro ur kutsatu dezake-eta". ■ G.A.

Zaldibarko Eitzaga auzoko jaien antolatzaileek "oso ontzat jo dute", izan ere, iaz baino jende gehiagok parte hartu du jaietako ekintzetan.

Eguraldi onagaz Eitzagako herritarrek festa giroan murgilduta ibili ziren. Jaietan jan-edana, dantzak eta hainbat lehiaketatan egon ziren. Paella eta tortilla lehiaketara esaterako, 8 talde aurkeztu ziren eta Marisol eta Mila Bildosola ahizpekirabazi zuten. Bolo txapelketak ere interesa piztu zuen eta 90 euroen irabazlea Imanol Osoro izan zen. Asto probetan berriz Victorio Celaya izan zen irabazle. Umeek ere izan zuten bere lekua eta marrazki eta idazlan lehiaketan hainbatek parte hartu zuten.

> argazki gehiago www.anboto.org-en

Eitzagako jaietan hainbat lehiaketa eta txapelketa



Lehiaketa eta sarien ostean paella eta tortilla jana egin zuten.

IZURTZA

Herriko ordenamendua berrikusiko dute taldean

Joan zen barikuko udalbatzarrean, gobernu taldearen botoekin onartu zuten herriko ordenamenduaren berrikuspina egiteko lanen behin betiko esleipena. Abstenitu egin ziren jeltzaleak.

Beraz, eta esleipenaren inguruko alegaziorik inork aurkeztu ez duenez, orain aste batzuk hautatu zuten Ramiro Mendiburu enpresari eman diote Izurtzako herri ordenamendua berraztertzeke egitekoa.

Gobernu taldeko zinegotziek alde bozkatu zuten, eta abstenitu egin zen EAJ

Atzo izan zuten enpresak eta udalak lanen inguruko lehenengo hartu-eman; enpresak zer helburugaz eta zer funtzionamendugaz egingo dituen bere azterketak adosteko asmoz. Herri ordenamendua berrikusteko lanari buruzko informazioa zabaltzeko eta herritarrek euren ekarpenak egiteko batzar irekiak noiz egin ere lotu zuten.

Ordenamendua berrikusiko duen enpresa behin betiko hautatzeagaz batera, Udaltzari sostengua adierazteko mozioa ere landu zuten bari-kuan: gobernu taldeak alde bozkatu zuen, eta abstenitu egin ziren, berriz, jeltzaleak. ■ I.E.

Atzo egin zuten lanak esleitu dizkioten enpresak eta udalak lehenengo batzarra

ABADIÑO

Gaztelua auzoan jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Uztailaren 3an eta 4an ospatuko dituzte Gaztelua auzoan jaiak. Bihar iluntzean, 20:00etan, txopoa altxatuta emango diete jaiari hasiera. Gura duten guztiak hartu ahal izango dute tortilla txapelketan parte, eta afaritarako batuko dira auzotarrak.

Domekan, 11:00etan, ohiturazko mezagaz abiatuko dute Gazteluko jaien bigarren eguna. Meza eta gero, jan-edanerako proposamena jasotzen du jaien egitarauak, eta Abadiño dantzarien emanaldia 12:00etan hasita. Umeentzako jolasak ere egongo dira 18:00etatik aurrera, gainera, auzoko jaietan.

DURANGALDEA

Jose Luis Bilbaoren erantzuna A8ko hobarien gainean

Oraintsu jakinarazi dute Aldundian EAJ, PSE, PP eta EA alderdiek akordioa lotu dutela Bizkaiko Errepideen Sektorereko Lurralde Planaren finantzaketa irizpideak arautuko dituen foru arauaren edukien inguruan. Aitziber Irigoras Durangoko alkateak horri buruz galdetu zion Jose Luis Bilbao aldun nagusiari joan zen astean Durangon eskaini zuen prentsaurrekoan. Bilbaok zera erantzun zuen: "Durangaldeko biztanleak ohiko erabiltzaileak direnez eta zonalde honetan bizi direnez, gure asmoa tratamendu berezia ematea da". VIA-T sistema "zonaldeko A8aren erabiltzaileak positiboki diskriminatzeke modua izan daiteke, eta neurri efektibo eta errealak aplikatzeko balioko digu".

GARAI

Hiru gazte atxilotuta baserri batean lapurreta egiteagatik

Momoiotiko San Juaneko baserri batean ustez lapurreta egiteagatik atxilotu zituzten, eguaztenean, iluntzeko 21:00etan, hiru gazte. Baserriko jabeek eman zioten abisua Ertzaintzari, lagun talde bat euren jabetzako baserri batean lapurretan zebilela esanez. Batek kotxez egin zuen ihes, beste biak mendira.

Ertzainek kotxea identifikatu zuten N-634 eta BI-633 errepideak elkartzen diren eremuan, eta atxilotu egin zuten gidaria. Garaira joan ziren agenteek, baserrira heldu eta gutxira topatu zituzten gainerako biak basoan gordeta. Besteak beste, bitxiak lapurtu zituztela dio Herrizaingo Sailak.

IURRETA

Eñaut Aiertzaguenak irabazi du Sanmigeletako kartel lehiaketa



Bederatzi lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta Ibarretxe kultur etxean 50 lagun inguruk eman zuten botoa, Eñaut Aiertzaguenarenak jaso zuelarik gehien. 'Barrutik' izeneko kartelean emakumezko dantzari koloretso bat ikusten da, mosaikoan. Aiertzaguenaren preso politikoa da eta Madrilgo Navalcarnero kartzelan dago. Lehiaketan gehiago ez parte hartzeko erabakia hartu zuen, baina oraingo egoeran "herriagaz lotura duten ekimenean parte hartzea erabaki du", adierazi zuen amak. Irabazitako 500 euroak iurretako gainerako bost presoekin banatuko ditu.

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara **zabalik**

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

katerin ardoak
inaki uribe

saltzan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com



Buskal Harley D.C.
Kustom Jaiak
Durango

DURANGO TIK
MUNDU OSO BAT ZURE
MOTORRAREN ESKURA!
UZTAILAK 2-3-4

INFO
+ Izen emateak
masdendak@masdendak.com
www.euskalharley.com
94 681 81 42



BERBAZ >

“Nerabezaroan idatzitako pasarteekin osatu nuen liburua”

Homosexualitatea zelan bizi izan zuen kontatzen duen liburua aurkeztu du Abadiñoako berbaldian



Iñigo Lamarca •

- EAEko arartekoa
- Donostiarra

gaitzesten zuten. Irainak oraindik ere erabiltzen dira. Pentsatzen nuen homosexual bakarra nintzela. Ustez jende guztia heterosexuala zen. Neure buruaren gaitzespena nuen. Baina horrek ez zuen asko iraun.

Egoera hori zelan aldatu zen?

Oso mutil irakurzalea nintzen. Liburu asko irakurtzen nituen. Homosexualitateari buruz ez nituen aurkitu, baina nobelatxo bat topatu nuen, eta protagonista homosexuala zen. Aldizkari bat ere aurkitu nuen, eta harek laguntza asko eman zidan; informazio asko eskuratu ahal izan nuen eta jendea ezagutu ere bai. Maitasuna eta duintasuna oinarri hartuta neure burarekin lan handia egin nuen, neure burua onartzera iristeko. Prozesu latza izan zela esango nuke. Esparru guztietan ezkatatu egiten nuen homosexuala nintzela. Sozializatu nintzen normaltasunez, baina ezkutuan neraman esparru bat hor zegoen. Nire konfidente bakarra egunkari hori zen.

Egunkari hori irakurrita zer sentitzen duzu orain?

Sentimendu oso biziak eragiten dizkit. Aldatu egin naiz, baina badaude beste elementu batzuk bizirik dirautenak. Hainbat gauzatan oraindik neure burua errekonozitzen dut. Emozionatu egiten naiz berrirakurtzen dudanean.

Gaur egun ere zailtasunak egon badaude?

Kasu batzuk badaude, gutxi izan arren, bulling edo jasarpen homofobikoak daudelako. Eskoletan ez dago protokolo egokirik izaera homofobikoa duen bullingari aurre egiteko ■ J.G./A.U.

Berbaldia ematera etorri zen joan zen astelehenean Iñigo Lamarca EAEko arartekoa Abadiñoara. Zelaietako liburutegiko hitzorduan Gay, Lesbiana, Bisekual eta Transexualen Nazioarteko Eguna zela-eta antolatu zuten. ‘Gay nauzu’ liburua hartu zuen berbagai homosexualitatea nerabezaroan zelan bizi zuen azaltzeko.

Zelan erabaki zenuen ‘Gay nauzu’ liburua idaztea?

Liburuaren jatorria bitxia da. Gehitu elkarte sortu zen Donostian 1997an, eta sorkizale eta ondoren bozemaile izan nintzen. Komunikabideetan 1998an ateratzen hasi nintzen. Nire izena plazaratu egin zen. Zuzenbide fakultateko irakaslea nintzen orduan. Batzar Nagusietako legelaria nintzenean laguntasuna neukan fakultateko irakasleekin, eta Amaia Lizarralde eta Joxerra Gartzia deitu egin zidaten. Alberdania argitaletxearen barruan Zer berri saila zuzentzen zuen Gartzia. Helburua testigantzak plazaratzea zen, eta gay aktibista moduan aktibismo horretara bultzatu

ninduten arrazoiak zeintzuk ziren azaltzea gura zuten. Sasoi hartan 38 urte nituen eta bizitza erabat normalizatu neukan, baina hori nola egin nuen azaltzea erronka polita zela iruditu zitzaidan.

Zelan idatzi zenuen liburua?

Nerabezaroan idatzitako egunkari bateko pasarteetaz baliatu nintzen. Liburuak ezer aportatu bazezakeen, sasoi hartan homosexual batek zelan bizi zuen homosexualitatea zela iritzi nion. Egia da esperientziak oso pertsonalak direla, baina beste lagun batzuekin hitz eginda, gehienok amankomunean hainbat bizipen ditugu. Homosexualitatea normalizatze aldera iruditu

zitzaidan ekarpen polita izan zitekeela egunkari hartan idatzitakoa plazaratu eta hainbat hausnarketa egitea.

Gogoeta egitea zenuen helburu?

Bizitzako hainbat gertakizun kontatzea eta distantziarekin balorazioa egitea uzartu gura nituen. Gay aktibista ikuspuntutik hausnartzea homofobiaren arrazoiak zeintzuk ziren, eta homosexualitatea normalizatze bidean zer urrats eman beharko lirartekeen.

Nerabezaroari buruz zer kontatzen duzu?

Argi eta garbi 14 urtegar konturatu nintzen homosexuala nintzela. Indefinizio batean egon nintzen urte bitan, baina adin horretan mutil batekin maitemindu nintzen. Lehenengo sentimendua izua izan zen. Gai horri buruz ez zen berba egiten. Ez nuen gaiari buruzko informaziorik. Homofobia egon bazegoen. Oso gogor

“Argi eta garbi 14 urtegar konturatu nintzen homosexuala nintzela”

“Amaia Lizarralde eta Joxerra Gartzia proposatu zidaten liburua idaztea”

EKONOMIA[>]

> ELORRIO

Elix Elorrioko enpresako beharginek greba mugagabea astelehenera atzeratu dute, sindikatuek adierazi dutenez, eguaztenean enpresak helarazitako ohar informatiboan beharginen eskaera guztiak onartzen baitzituen. Hau da, “2009ko soldatak igotzea, atzeratutako ordainketak eguneratzea eta aurtengo KPIren igoera eta puntu erdia”, beharginek eskatzen duten moduan.

Sindikatuek diotenez, “ohar informatiboak ez du oinarri legalik”, beraz, akordioa sinatu arte greba mugagabea mantentzen dutela adierazi dute. Izan ere, “ohar horrek ez du zilegitasun nahikorik”, diote sindikatuek.

Enpresak helarazitako ohar batean beharginen eskaera guztiak onartu ditu

Enpresa komitea gaur bilduko da enpresako zuzendaritzagaz “akordioa sinatzeko”. Hala ez bada, astelehenera greba mugagabea hasiko lukete. “Eskaerak onartu dituzte, bai, baina orain komak non jartzen diren ikusi beharko da”, diote sindikatuek. ■ G.A.

Elixeko beharginek greba mugagabea atzeratu dute

Sindikatuek gaur enpresagaz duten bileran akordioa sinatzea itxaroten dute



Elix metal arloko Elorrioko enpresako beharginak gaurko bileraren zain daude.

> ABADIÑO

EMA enpresan 15 behargin kaleratuko dituzte

Enpresak eta sindikatuak kontsulta epean daude, baina egoera “oso txarra” dela dio LABek

El Material Aislante enpresak 15 kaleratze eta lanaren %30ean eragingo duen bi urteko Lan-Erregulazio Espedientea eskatu du, dagoeneko, delegaritzan. Orain kontsulta epean daude, hilabete honetan enpresako zuzendaritza eta komitea bildu eta akordioak lortzeko epean, hain zuzen ere.

Enpresa eta sindikatuak gaur bilduko dira berriro, baina LAB sindikatuak dioenez, “egoera oso txarra da”. Sindikatuek diotenez,

“enpresari hainbat alternatiba aurkeztu dizkiogu”, baina “agintariak” bere horretan jarraitzen dutela diote: “Itxita eta oso temati”. Baina sindikatuek ez dutela “kaleratze traumatikorik sinatuko” diote.

Joan zen barrikuko batzarrean enpresak LEEaren inguruko dokumentazioa sindikatu guztiek ez izatea eta “garbi jokatu ez izana” salatu du LABek; “dokumentu bakarra eman ziguten eta guk konpondu behar izan dugu”. ■ G.A.

> DURANGALDEA

Formazio eskaintza, turismo arloko zerbitzua hobetzeko

Basquetourrek, Euskadiko Turismo Agentziak, hamar ikastaro eskaintzen dizkie sektoreko profesionali

Basquetourrek, Euskadiko Turismoaren Agentziak, turismo sektorean behar egiten duten profesionalentzat formazio egitasmoa ipini du martxan. Euskadiko 2010-2013 turismo arloko Marketing Planari lotutako ekimena da, eta ‘Anfitriones: Cultura del Detalle’ egitasmoan oinarriturik dago.

Ikastaroak irailtik abendura izango dira, baina izen ematea uztailean

“Turismoko beharginak turismo sustatzaile dira”

Ikastaro hauen helburua enpresa turistikoek eskaintzen duten zerbitzua hobetzea da, eta horrela bezeroek jasotzen duten zerbitzuaren kalitate maila hobetzea. Bestalde, turismo enpresen lehiakortasuna hobetzea itxaro-

ten dute. Beraz, helburu horiek lortzeko Basquetourrek lau orduko 10 ikastaro doan eskaintzen dizkie turismo sektoreagaz zerikusia daukaten behargin pribatu zein publikoei; iradokizun eta kexak kudeatzeko gaitasuna hobetzea, motibazioa mantentzeko teknikak... Izan ere, antolatzaileek azaldu dutenez, “turismo arloko profesionalak zerbitzu emaile ez ezik, eskualdeko turismo sustatzaile ere badira”

Bost ikastaro zuzendari eta erdi mailako arduradunei zuzenduko zaizkie. Beste bostak, berriz, bezeroekin hartu-eman zuzena daukaten beharginei bideratuta daude. Ikastaroak Durangaldean eskainiko dituzte, irailtik abendura bitartean. Izen-ematea uztailean burutu behar da Urkiola landa garapenerako elkartearen bulegoan. Informazio gehiago: 94 620 36 11 edo 688 61 35 37 telefonoetan eta ksimon@urkiola.org helbidean. ■ G.A.

■ kolaborazioa




Aitor Iturriaga
LAB sindikatua

Eroski eta miserableak

Komunikabide nagusiek eta estatuko gobernuak zein gobernu autonomikoei Greba Orokorren oihartzuna eta eragina isilarazi nahi duten arren, begibistakoa dena ezin da ukatu. Zenbait zerbitzu publikori (garraioa, osasungintza...) legearen bortxarekin inposatutako “zerbitzu minimoekin” nahiz eta normaltasun itxura ematen saiatu, ehunka herri itxita iratzarri ziren, eta milaka langile izan ziren aldarrikapen egun horrekin bat egin zutenak. Beste behin ere, Euskal Herriak bere nortasun eta izaera propioa agerian utzi zuen. Gobernu zein patronalak emandako gezurrezko datuek ezin dute estali Greba Orokorren erabateko arrakasta. Zorionak, beraz, ekainaren 29ko greba deialdiarekin bat egin zenuten gizon eta emakume guztioi. Greba egunean lan egiteko eskubidea bermatzeko eskatzen duten horiek, ezer ez diote kaleratzeko beldurratik lanera joan ziren langile ebentual eta ETTei buruz, ez eta aukera hori egiterik ez duten milaka langabetuei buruz. Miserableak urte luzetako borrokaren bidez lortutako eskubideak dohainik oparitzeko prest daudenak. Miserableak, egun batez ere, borroka egiteko prest ez daudenak. Miserableak bere poltsikoari soilik begiratzen dioten horiek. Miserableak elkartasuna hitzaren esanahia ezagutzen ez dutenak. Miserableak handien artean daude Arrasateko Kooperatiba taldeko hainbat enpresa; bereiziki, bere ikur den Eroski. Langile kontzientzia baino enpresari kontzientzia duten pertsonen osatutako kooperatibak, beste behin ere, muzin egin zien bere sorrerako printzipio eta oinarri ideologikoei. Non daude jendartearekiko elkartasuna eta beraien komunitatearekiko konpromisoa? Zertan dira desberdin? Iragan asteartean, Elorrioko egoitzaren aurrean bildutako kaputxadun segurtasun zaindarien eta dozenaka ertzainek garbi azaleratu zuten beraien desberdintasuna eta funtsezko oinarri ideologikoa: negozioa guztiaren gainetik.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK



Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA >



LITERATURA > EKIMENA

'Bizi letra' ekimenaren lurretako geldialdia

Artate kultur programazio eta kudeaketa enpresak sustatuta, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako 30 herritan uztailearen 12ra arte martxan izango den *Bizi letra* ekimenaren lurretako aurkezpena egin zuten, Ibarretxe kultur etxean, eguaztenean. Iñaki Totorikaguena alkatea, Zioztza Onaindia Bibliotekako arduraduna eta Atarteko Idurre Arrazola batu ziren deialdia egitera.

Uztailearen 6an, Iñaki Totorikaguena alkateak berak zabalduko du ekimena, eta bere ondoren udalbatza osatzen duten gainerako zinegotziak igoko dira bizikletara, gidariak pedalei ematen dien bitartean, hautatzen duten liburuen irakurketa egitera. Irakurzaletasuna sustatzea helburu duen

ekimenagaz bat eginez, udalbatza osatzen duten zinegotziek, herriko elkarten eta ikastetxeen ordezkariak zein norbanakoek ipiniko dute euren aletxoak lurretak eskuratu dezan saria.

Biztanle eta Bibliotekako bazkide kopuruaren arabera eman dute puntuazioari dagokionez, Basauri, Getxo edo Ermua baino puntu gehiagotzat abiatuko da lurreta: lau mila biztanlera ailegatzeko ez den herrian ia 2.000 bazkide ditu bibliotekak.

Uztailearen 6an, 09:30ean hasi eta 13:30 arteko tarteak edukiko dute iurretarek euren herriko maratoiaren saria eskuratu dezan laguntzeko: 2.500 eta 1.500 euroan baloratutako irakurzaletasuna sustatzeko programa da saria. ■ I.E.

Bizi Letra DURANGALDEAN

Uztailearen 2an
Elorriko herriko plazan

Uztailearen 6an
lurretako herrigunean

Uztailearen 7an
Zaldibarren

Uztailearen 9an
Durangon

12 Haur kantarien lehiaketan sarituak

Bizkaiko Haur Kantari Lehiaketan irabazle suertatu diren abestiak prestatzen Durangoko Institutuko atsedenaldietan jardun duten hamar neska gazteekin berbaz.



13 Alertaren hirugarren diskoa

Ekainaren erdialdean plazaratu zuen Durangaldeko bost musikariek osatzen duten Alerta taldeak 'Siempre más fuertes' izeneko diskoa. Euregaz egon gara.

MUSIKA > LEHIAKETA

Bizkaiko Haur Kantarien Lehiaketatik, txapela jantzita

Barakaldon lehenengo saria irabazi zuten Durangaldeko hamar neskak



Ekainaren 19an, Barakaldon egin zuten Haur Kantarien Bizkaiko Lehiaketako finalean kantatu eta irabazi zuten 10 neskok, aurretik Berriatua eta Abadiñon egin zituzten beste bi saioretan sailkatu eta gero.

Durangoko Institutuko eskolen artean dauzkaten atsedendialdiak aprobetxatu dituzte 12 eta 14 urte bitarteko neska gazteok kantak prestatzeko. *Lau Teilatu* eta *Behin batean Loiolan*, a capella kantatu zituzten finalean.

Amaiur Azkarate eta Maite Molina taldekideek, gainera, bikoteen modalitateko bigarren saria ekarri dute Barakaldoko finaletik.

Urtebete daramate hamar neska gazteok kanturako batzen; hasiera batean Xaramel izeneko

Durangoko Institutuko atsedendialdiak prestatu dituzte kantak

Hamabi eta hamalau urte bitarteko neska gazteak dira hamarrak

boskotean eta irakasle baten gidaritzagaz jardun zuten. Irakaslerik ez daukatenetik baina, taldea handitu eta euren kontura dabilta neskek atsedendialdiak elkartu, kantak aukeratu eta prestatzen.

Durangoko Orfeoi Txikian ibilitakoak dira taldekideetako batzuk, eta Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako abesbatza ere kantatzen dute batzuek.

Euren adineko jendea kantatzera erakarri gura luketela esan digute neska gazteek, eurek bezala kantagintzagaz gozatzen.

Alabek lortutako saria poz handiz hartu duten gurasoekin batera taldea laguntzen jardun duen Roberto Palacios Durangoko Orfeoiko kide eta nesketako baten aititik dioenez, datorren

Kopla zaharrak, koru gaztea eta soinu elektronikoa uztarturik

MUSIKA > DISKO BERRIA

Kepa Junkera, Leioa Kantika korala eta Xabier Amuriza 'Beti bizi' lanean

Amurizak egin du 'Beti bizi' diskoan jasotako koplak berreskuratzeko lana

Leioako Kantika abesbatzako aho-tsak, Kepa Junkera soinu-jotzailearen musika eta ekoizpena, eta Xabier Amuriza bertsolari eta idazlearen elkarlanetik sortutako diskoa da *Beti bizi* izenagaz Bilbon asteen aurkeztu dutena.

Hiri Records disketxeak plazaratu eta aurkeztu du asteen diskoa

Xabier Amurizak egindako kopla zaharren hautaketa batean oinarrituta moldatu dituzte *Beti bizi* diskoan bildu zituzten hamabi kantak. Bizkaiko aspaldiko kopla zaharrak berreskuratzeko Amurizak burututako lana du proiektuak oinarri. Leioako abesbatzako neskek kantatu ahal izateko moldatu egin ditu berreskuratutako koplak Amurizak, bestalde.

Kepa Junkera musikariak, Bizkaiko dantzetako hainbat doinu egokitu ditu diskorako. Bere esanetan, "musika fusioaren ikuskerari berri bat, soinu desberdin bat, abesbatza proposamen berritzailea" osatu dute ekoizpen berri honetan. Junkera bilbotarrak moldatu eta interpretatu ditu diskoan batutako erritmo eta doinuak.

Hiri Records disketxeak plazaratu du hiru esparrutako sortzaileen elkarlanetik sortutako kanta tradizionalen bilduma: kanta tradizionalak, ezagunak zaizkigunak, baina modu berezian moldatutakoak daude *Beti bizi* diskoan

Amurizak hautatutako Bizkaiko koplak dituzte lan berri honek oinarri



GEURE DURANGALDEA



Miren Amuriza Bertsolaria

"Jantzarik-jantza Anbotopeko erromerijen sanue"

Elizatik zortzigarren kanpaikada entzun orduko isil-isilik gelditu ginen danok dantzariak noiz hasiko. Ama gazte pare batek umeei eskutik kolpe eta plazatik urrundu zitueenerako, udaleko agintariak beren lekua hartuta zegoen; baita Donien Atxa be erdi-erdian zutunduta. Dena prest Dantzari Dantzari ekiteko.

Txistulariak aurrean hartuta, txapelgorridun zortzi gazte sartu ziren plazara txalo eta txilin hotsen artean. *Agintarienagaz* hasi eta *Banangoa*, *Binangoa*, *Ezpata jokuak*, *Makil dantzak* eta *Txontxongiloarena* egin zitueen. Azkeneko hau izan zen zahar zein gazteen txalo gehien batu zituena.

Giroa gori-gori zegoela, dantzariak euren emanaldia amaitu eben. Orduan, nire aurreko eskaileran adi-adi zegoen mutikotxoari haxe entzun neutsan: "Ama, oin neskenak dato ezta?". Eta amak: "Ez Oier, gaurko egunez mutilek bakarrik eitten dabe dantzan." Mutikoa ez zen erantzunagaz lar konforme geratu, eta neu ere ez.

Izan be, ez deutset meriturik kendu gura Durangaldeen urterik urte dantzan jarraitzen daben mutiko, mutil gazte eta gizonei; ezta gitxiago be. Baina beste gauza askotan legez, tradizioak aldatzea onerako izan leiteke.

Iparraldean, esaterako, emakumezkoek ezin izaten eben pastoraletan parte hartu. Baina gero eta mutil gitxiago zegoenez, onartu egin behar izan ditue. Bada garaia geurean be txilinekin batera gona gorriak astintzeko! Ala gizonezkoak agortu arte itxaron behar dogu ba?

ikasturtetik aurrera irakasle batezag Euskal Herriko txapelketa prestatzen hastea dute asmoa.

Abadiño, Balmaseda, Galdakao, Markina eta beste hainbat herritako abeslari gazteek kantatu zuten Bizkaiko finalean. ■ I.E.

Euskal Herriko txapelketa prestatzen hasiko dira irailean

entzungai. "Iragana eta oraina elkartzen dituen proposamen musikala" dela azaldu dute asteen egin duten aurkezpenean: kopla zaharrak, abesbatzen mundua eta musika elektronikoa. "Kopla zaharrak, koru gazte bat, dantza-erritmo biziak eta soinu elektronikoa dira lan honen berritasuna eta indarra", Amurizaren berbetan.

Horregatik, konplexu bakoa eta ausarta dela proiektua azpimarratu dute sortzaileek. Talentu han-

diko sortzaileen elkarlanetik jaitako lana, sustraietan indarra hartzen duena baina fruitu berriak ematen dituen da diskoa. ■ I.E.



MUSIKA > ELKARRIZKETA

Zelan joan da grabazioa?

Bateria eta bajua hemen, lokalean grabatu genituen, eta ondoren joan ginen Berrizko Estoldetan estudioa. Jon Olabarriaga teknikariagaz grabatu genituen ahotsak eta gitarrak. Urtebetean jardun dugu grabazioa egiten.

Hirugarren lana duzue hau...

Bai, bi diska plazaratu ditugu aurretik; 1999an lehenengoa, eta 2004an *Devhil* izenekoa izan zen bigarrena.

Hamabi urteotan hasierako taldekideek diharduzue?

Orain urte batzuk izan genuen taldekide aldaketa bat: lan kontuak zirela-eta taldea utzi zuen baxu-jotzaileak. Urte asko daroagu orain gaudenok elkarregaz. Denboraldi batean, *skracht*-ak egiten zituen lagun bat ere etorri zen kontzertu batzuetara.

Zein da hainbeste urte elkarregaz jarraitzeko sekretua?

Egia esan, ez da oso ohikoa izaten hainbeste urtez elkarregaz jarraitzea. Taldeak bere estiloan eboluzio nabarmena izan duen arren, beti izan gara berberak; zelanbait, taldekideok heldu ahala aldatzen joan da Alerta egiten dugun musika ere.

Hamabi urtean hiru disko. Presa barik jarduten duzue?

Bai, eta autoekoizpenaren bideetik joatearen arrazoietako bat da gure lan egiteko modu hori. *Devhil* diskorako, ahotsak izan ezik, beste guztia lokalean geuk grabatu eta ondoren Jon Olabarriagaz nahastu zuen. Beste taldekide bat gehiago da Jon: grabazioak, nahasketak eta abar berak egiten dizkigu.

Diskoa oraindik kalean egon barik hainbat kontzertuekaini duzue udaberrian.

Diskoari oraindik azken ukituak ematen genbiltzala ekin genion diskoko kantak zuzenean jotzeari, bai. Hamar bat kontzertu eskaini ditugu azken hileetan.

Eta zelako sentsazioak izan dituzue zuzenekoetan?

Oso gustura gaude kontzertuetan, adrenalina purua dira-eta zuzenekoak guretzako. Azken bi kontzertuak, batez ere, oso

Aurreko diskoetako baino mezu baikorragoagaz datorkigu Alerta

'*Siempre más fuertes*' izena dauka Durangaldeko musikariek osatzen duten **Alerta** boskoteak kaleratu duen hirugarren diskoak. Elkarrizketara batu zaizkigun Jabi abeslaria eta Alain bateriaz gainera, Beny, Sesi eta Txixi dira Alerta. Irailean ekin gura diote diskoko zazpi kantak aurkezteko birari. Hardcore musikan espezializatuta dagoen Fragment disketeagaz kaleratu dituzte diskoko mila ale.



bereziak izan dira. Tabirako jaientan joan genuen joan zen asteburuan.

Igarriko duzue hainbeste urte elkarregaz jotzen jardun eta gero segurtasun bat oholztan, ezta?

Bai, geroago eta gusturago sentitzen gara kontzertuetan.

Zelan batu zineten orain hamabi urte Alerta sortzeko?

Cicatriz taldearen bertsoak egiteko elkartu ginen hasieran. Metal asko entzuten genuen orduan, baina ez zen erraza jotzeko, eta horrela hasi ginen Cicatrizen kantak jotzen. Talde gehienak, zelanbait, leundu egiten dira adinagaz, baina gurea kontrako bidea izan da.

Zertan igartzen duzue eboluzioa disko hau entzuzkeran?

Gure kantak sortzen hasi gineanean bageneukan joera bat, noi-

zean behin melodia bat sartzea "behartzen" gintuena; "Sartu dezagun zer edo zer melodikoa goa, ze bestela entzuleak...". Disko hau da aldaketaren erakusle: ateratzen zaigun bezain intentsioa, leundu gura bakoa da. Gero eta gehiago egiten dugu barrutik ateratzen zaiguna. Egiten duguna ez da batere zerebrala, urdailekoa da gehiago.

'Siempre más fuertes' du izena?

Bigarren diskoa, *Devhil*, pertsonen ahuldadari buruzkoa zen gehiago; "negartia goa" zelanbait. *Siempre más fuertes* honen mezua positiboagoa da.

Zelakoa izan da disko berria prestatzeko lana?

Nahiko zehatza izaten da Alertaren sorkuntza-lana: Beny gitarristak abiatzen ditu kantak,

"Taldekideok heldu ahala joan da Alertaren soinua ere aldatzen"

"Geroago eta gehiago egiten dugu barrutik ateratzen zaiguna"

Jabik eta Alaine egiten dituzte konponketak, eta denok elkartuta lokalean fintzen ditugu. Ondoren idazten ditugu letrak. Ikusi dugu horixe dela gure lan egiteko modua.

Eta disko honetako letrak?

Disko honetarako Jabik idatzi du gehiago. Oso letra zuzenak dira, eta guk jarrera oso gogorra izan arren, azkeneko mezua beti da oso positiboa. Oso letra pertsonalak dira, inguratzen gaituenari buruzko gogoetak.

Eta kontzertuak?

Abuztuan ez dugu kontzerturik eskaintzen, oporrak hartzen ditugu. Jotzea oso gogoko dugu, zuzenekoetan disfrutatzen dugu gehien, baina argi daukagu zaleatasun bat dela guretzat musika, eta lasai hartzen dugu. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

UZTAILAK 3
22:00etan

ANTZERKIA.
Sarrera: 15-20euro.

FATOU GUEWEL (MBALAX Senegal) +
MASS NDIAYE +
GAL SEN WARRIORS HIP HOP

www.plateruena.net

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

KOLEKTIVO MONSTRENCO
Tenemos que hablar

Tabirako parkea
Uztailak 30 • 22:00etan

UDA KALEAN BIZI 2010

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11.91 601 07 76

Artekale, 11 DURANGO

ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA

Munduan zeharreko bidaietan egindako argazkiak ikusgai

Uztailaren 16ra arte dago bidaietan hartutako argazkien erakusketa Errota kultur etxean



Ekainaren 28an, astelehen honetan hasita uztailaren 16ra arte Errota kultur etxean dago *Bidaia-tu TAN TAN TAN* ekimenean parte hartu duten bidaiarien argazkien erakusketa zabalik.

Maiatzean eta ekainean berbaldiak eskaini dituztenen argazkiak

Maiatzean eta ekainean kultur etxeetan izan diren berbaldietan euren bidaietako esperientziak kontatu dituzten abadiñarrak zein beste herri batzuetako bidaiariak dira erakusketarako batu dituzten argazkien egileak. Besteak beste, Txina, Iran, India, Nepal edo Mali lako herrialdeetako paisaiak, bizilagunak eta bizimoduak erakusten dituzten irudiak dira, beraz,

uztail erdi aldera arte Abadiñoako Errota kultur etxean ikusgai izango ditugunak.

Lehenengoz antolatu du bidaien inguruko topaketa hau Abadiñoako Udaleko Kultura Sailak, eta nabarmena izan da proposamena horren arrakasta.

Herriko bidaiazaleek, udako euren bidaiak prestatzeko informazio-iturri legez baliatu ahal izan dituzte Errota kultur etxeko udaberriko berbaldiak. Hitzaldietan eskainitakoa osatzera dator orain, ekainean eta uztailaren kultur etxean ikusgai dugu munduko argazkien erakusketa. ■ I.E.

Bidaietan hartutako argazkiak, paisaiak eta bizimoduak erakutsiz

PROGRAMAZIOA > EMANALDIAK

Musika emanaldi bi, pailazoak eta antzerkia Musikairen

Emanaldi erakargarriak proposatu dituzte uztailaren 2, 3, 4 eta 9rako

Emakume biren musika emanaldiak dira bariku honetan, uztailaren 2an, eta gaur zortzi Elorrioko Musikairen hitzartuta dauzkatenak. Elorrioko udako kultur jaialdian joko duten lehengo musikari biak euskaldunak dira, eta anitzak aireratu dituzten doinuak.

Donostian jaioa da gaur, 22:30ean hasita, Lourdesen zuzenean entzungai izango dugun Maria Berasarte, eta Portugalgo hiriburuko itsasadarreko doinuen brisa ekarriko du Elorriora. Lis-

boako Alfama, Mouraria edo Bairro Altoan sortutako doinu sakinak eskainiko ditu Berasartek.

Emakumezko beste ahots bat, aurrekoaren antzekoa izan litekeena berba eta doinuen sakontasunean, gertuagotik datorkigun Anari da. Gaur zortzi, uztailaren 9an, Argiñetako gauaren berezko xarmari *Irla izan* diskoan kaleratutako kantetako berba eta doinuak gehituko dizkiote Anari azkotiarak eta Borja Iglesias, Xabier Olazabal, Mikel Abrego eta Maite Arroitauregi bere taldeko musikariek, 22:30etik aurrera.

Musikagazko hitzordu bi horien tartean, antzerkia, eta Durangaldeko umeak zain dituen Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen bisita izango dira Musikaire jaialdiaren lehenengo aste

honetan. Pailazoen "irrien festarako", Xabier Zabala musikaria eta Idoia Uralde kantaria ere igoko dira domekan, herriko plazara ipiniko duten oholtzara.

Lau kultur ikuskizun Musikaire jaialdiaren lehenengo astean

Uztailaren 3an, zuzeneko musika eta antzerkia uztartzen dituen Che & Moche antzerki talde madrildarraren *Oua Umplute* ikuskizuna izango dugu Elorrioko herriko plazan ikusgai, 22:30ean. Europa ekialdeko tradizio musika eta umorea jorratuko dituzte emanaldian. ■ I.E.



ERMUA

Uoni

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57
Faxa: 943 17 64 50
E-mail: uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Informatika Aplikazioen Garapena
- Informatika Sistemen Administrazioa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mikroinformatika-Sistematik eta sareak (A eta D ereduak)

EIBAR

Uoni

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 / Faxa: 943 20 31 96
E-mail: uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Nazioarteko Merkataritza
- Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Merkataritza

Matrikulazioa


zikloak:
uztailaren 7tik 13ra
A eta D ereduetan

“Zaldibar”

2010eko

Udako San Andres

jaiak



UZTAILAK 2, 3 eta 4

Eskualdeko XX. Areto-futbol Txapelketa kiroldegian.

UZTAILAK 3, ZAPATUA

- **12:00-14:00 eta 18:00-20:00** Argazki erakusketa udaletxe zaharrean. Iñigo Bernedoren lanak.
- **16:00etan** Junior mailako 1. eta 2. urteko txirrindularien lasterketa.
- **16:30ean** Durangaldeko pilota eskolen arteko finala, Olazar pilotalekuan.

UZTAILAK 4, DOMEKA

- **08:30etik 14:30era** XXVII. argazki rallya
- **10:00etan** Bizkaiko eskolen arteko txirrindulari lasterketa.
- **12:00-14:00 eta 18:00-20:00** Argazki erakusketa udaletxe zaharrean. Iñigo Bernedoren lanak.
- **16:00etan** Kadete mailako Bizkaiko txirrindulari txapelketa, taldeka.

UZTAILAK 7, EGUAZTENA

- **10:00etatik 14:00etara** Bizi-letra maratoia. Irteera liburutegitik.
- **19:00etan** Donien-atxa ipiniko dute herritarrek.
- **19:15ean** Jaietako kartel lehiaketako sari-banaketa, udaletxean.
- **19:30ean** Jaien hasiera iragarritz, txapligua jaurtiko du udaletxetik Ane Alberdi arku tiralariak. Ondoren, kalejira Koral elkarteko trikitilariekin eta buruhandiekin.
- **19:30ean** Txaranga
- **20:00etan** Odoloste-jana Bekoetxe kalean.
- **23:00etan** Rock kontzertuak herriko taldeekin Txosnagunean.

UZTAILAK 8, EGUENA

- **11:00etan** Kalejira Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketako trikitilariekin.
- **13:00etan** Meza San Andres parrokian.
- **17:00etatik 19:00etara** Eskulenen erakusketaren inaugurazioa fonotekan.
- **18:30ean** Afizionatuen arteko pilota partiduak Olazar pilotalekuan.
- **19:00etan** Herritarrentzako afari-merienda Olea kalean.
- **22:00etan** Luhartz taldeak girotutako dantzaldia Euskal Herria kalean.

UZTAILAK 9, BARIKUA

- **11:00-13:30 eta 16:00-19:00** Puzgarriak.
- **17:00etatik 19:00etara** Eskulanak eskoletan: loreak, buztina eta kandelak.

Zaldibarko JAI EGITARAUA

- **19:00etan** Kale animazioa
- **23:00etan** Rock kontzertuak: Des-kontrol eta La Pulqueria.

UZTAILAK 10, ZAPATUA

- **11:00etatik 14:00etara** Arku jaurtiketa umeentzat, Arku taldearen galerian.
- **12:00etan** Tortilla txapelketa eskolan.
- **12:00-14:00 eta 17:00-19:00** Eskulenen erakusketa fonotekan.
- **16:00etan** Mus txapelketa eskoletan.
- **17:00etan** 3x3 saskibalo txapelketa.
- **17:00etatik 20:00etara** Eskulan erakusketa Jubilatuen Etxearen beheko solairuan.
- **19:00etan** Olinpiadak Jose Antonio Agirre parkean.
- **21:30ean** Herri-afaria eta brindisa, Txosnagunean.
- **23:30etan** Erromeria Txosnagunean Tximeleta taldearen eskutik.

UZTAILAK 11, DOMEKA

- **11:30ean** Meza San Martin basilizan
- **12:00-14:00 eta 17:00-19:00** Eskulenen erakusketa, eskolako fonotekan.
- **17:00etatik 20:00etara** Eskulenen erakusketa Jubilatuen Etxearen beheko solairuan.
- **18:00etan** Balkoitik balkoira, bertso saioa Zaldua plazan.
- **20:00etan** Zirko Iluna antzezlanaren udaletxeko plazan.
- **23:00etan** Su artifizialak Askorra kalean.

UZTAILAK 17, ZAPATUA

- **08:00ean** Mendi-ibilaldia Zaldua plazatik irtenda.

UZTAILAK 18, DOMEKA

- **12:30ean** Argazki digitalen emanaldia eta sari-banaketa futbol zelaiko ekitaldi-aretoan.



IMENDIA

- Bideo alokairua
- Prentsa salmenta
- Fotokopiak
- Goxokiak

Tel./Fax: 94 682 74 13
Zaldibarko E. 7
48250 ZALDIBAR

BARATZA FRUITADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2ª behea
Tel.: 946 225 063
48250 Zaldibar, Bizkaia

Irantzu

Euskalherria, 8
Tel.: 94 682 71 90
48250 ZALDIBAR (Bizkaia)

etarte

www.etarte.com

ideiak sortu
diseinatu
eraiki
apaindu
bermatu

Euskal Herria kalea 2/g. Zaldibar
T/F: 94 603 04 16 info@etarte.com

Erromeria eta Rocka kaleetan

Musikarik ez da faltako aurtengo udako San Andres jaietan. Erromeria eta rock doinuak uztartuko dira eguaztenetik aurrera. Herriko taldeek emango dute lehenengo kontzertua hilaren 7an, gaueko 23:00etan, Txosnagunean. Hurrengo egunean, estiloz aldatu eta dantzarako aukera eskainiko du Luhartzek Euskal Herria etorbidean.

Barikuan, hilaren 9an, izango da emanaldi nagusia: Des-kontrol arrasatearrek eta La Pulqueria valentziarrek joko dute, 23:00etatik aurrera. Lehenengoek Euskal Herriko panorama musikalean

Des-kontrol arrasatearrek eta La Pulqueria valentziarrek joko dute barikuan

leku garrantzitsua egin dute; bigarrenak oraindik plaza gutxi egin dituzte hemen, baina geroago eta ezagunago egiten dabilta euren musika fusioari eskerrak.

Amaitzeko, Tximeleta taldea zapa-tuan, hilaren 10ean, hurreratuko da Zaldibarrera. Erromeria talde hau ez da oso beterranoa, baina udan hainbat txoko alaituko ditu bere musikagaz. Kanta esanguratsuen bertsoiak egingo dituzte, besteak beste.



Era guztietako osagaien saltsa

Kale animazioak eta musikak bereiziko ditu aurtengo jaiak



Txapligua jaurtiz hasiko dira jaiak ofizialki, eta ardura horretarako pertsona egokia topatu dute aurten: Ane Alberdi, arku tiroketan Euskadiko txapelduna eta Europako azpitxapelduna berau. Udako San Andresak ekitaldiz beterik datoz, gustu guztietako jendearentzat eginak, gainera.

Gastronomiak aparteko lekua izango du datozen egunetan. Esaterako, txupinazoaren ondoren odoloste-jana izango da Bekoetxe kale-

an. Hilaren 8an ere herritarrentzako afari-merienda antolatu dute.

Kirol arloan, ezin dira ahaztu txirrindularitza eta pilotagaz lotutako ekimenak; Durangaldeko pilota finalak jokatuko dira gaur bertan. Haurrek ere puzgarri eta eskulanekin disfrutatu ahal izango dute, eurak ere protagonista baitira.

Bestalde, uztailaren 17rako mendi martxa neurtua eratu du Zaldia Mendi Taldeak, goizeko 08:00etan hasita 30 kilometro egiteko.

Argazki Rallya, domekan

Ilargi argazkilari taldeak ere bere egitaraua prestatu du jaietarako, eta domeka honetan, uztailaren 4an, izango da lehenengo ekintza: Argazki Rallya. 27. edizioa beteko du aurten rallyak.

Lehiaren modalitatea digitala (JPG) izango da, eta parte hartzeko izena Ilargiren egoitzan -Olazar aretoan- eman

behar da, goizeko 08:30etik 09:30era bitartean. 5 euro ordaindu beharko dituzte interesatuek, baina zaldibartarrek eta 17 urtetik beherakoek doan izango dute. Sarietarako, lehenengoak 125 euro irabaziko ditu, bigarrenak 100 eta hirugarrenak 75. Herriko onenaren saria ere 75 eurokoa izango da, eta gazte onenarena 50 eurokoa.

Argazki Rallyaz gainera, Iñigo Bernedoren erakusketa ere antolatu du Ilargi aragazkilari taldeak asteburu honetarako

maderlan

Bilbao etorbidea, 8 behean • 48250 Zaldibar
Tele: 94 622 50 74

MUELLES ZALDUA
EDUARDO JAUREGIBARRIA
GERENTE

Avda. San Andrés, n.º 1
48250 ZALDIBAR (BIZKAIA)
Tfno.: 946 82 78 01/02
Faxi: 946 82 76 54

E-mail: info@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzalea:

Launa plus
Ondua

Bodegas Launa
Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

2010

zaldibarko jaiak



BAR NEGU-GOGOR
 Tfnoa. 94 682 70 03
 ZALDIBAR (Bizkaia)



Paularen zokoa KAFE
 7:00retatik aurrera zabalik
 946550481 zaldibar




amets

kizkitza taberna
 Berezitasunak:
 • Pintxoak • Ogitartekoak • Etxeko gozogintza •
 Tel. 946 033 310
 Euskalherria, 30 . 48250 Zaldibar . Bizkaia



CASTET ELKARTEA



Zaldibar



etxean nahi dugu!

IRITZIA >

Gutunak

Durangaldean hauteskunde kanpainan gaude

Joan den barikuan PNVren hauteskunde kanpainaren atal berri bat ikusi genuen. Gure eskualdean Bizkaiko alduen nagusia izan genuen, herri-lanen alduen lagunduta eta alderdi bereko inguruko hainbat kargu publikoren koruarekin.

Oraingoan dakarkiguten oparia hainbat kilometroko autobide, saihesbide eta autopista dira, beraien arabera, gure mugikortasun arazo guztiak konponduko dituztenak.

450 milioi euro baino gehiago gastatu nahi dituzte azpiegitura berriak eraikitzeko, zeintzuek amaituta egon bezain laster erakutsiko duten arazoa areagotzeko besterik ez dutela balio, horrelako bat egiten duten bakoitzean gertatzen den moduan.

Oraingoan ere, Aldundian ez da inolako hausnarketarik egin garapen ereduaren inguruan, ezta garraio ereduari dagokionez ere. Honen moduko azpiegitura erraldoiak herritarrei galdetu barik planteatzen dituztenek ez diote inolako kritikarik egiten euren buruari.

Gure eskualdean 450 milioi euro baino gehiago gastatuko dituztela diote, baina ez dute bertoko udalekin kontsultatu ia autobideen ibilbidearekin ados dauden. Edo kontsulta egin dute, baina guztia erabakita zegoenean. Hori bai, aurkezpen-erako alkate guztiak gonbidatu dituzte, txalo egin dezaten, baina iritzia emateko aukera barik.

Ez da hau gure eskualderako nahi dugun eredia. Ez dugu gura 450 milioiko "konponbiderik", ezer konpondu barik arazoa areagotzeko duenik. Guztion dirua gastatuta betikoen negozio-rako nahiakasetzeko planteatzen diren azpiegiturak oinarri dituen eredia ez da gurea.

Gure ustez eztabaida sakon eta zabala eman behar da, behar dugun gizarte eta garapen eredia erabakitzeko; garraio ereduaren ardatz nagusia garraio publikoa izango duena, berau benetan sustatuta, auzoak, lantegiak, ikastetxeak eta erosketa guneak behar den moduan elkarlotuta. Berba baten, guztiok egunero erabiltzeko moduko garraio publikoa behar dugu, eta ez azpiegitura erraldoi gehiago, kotxearen erabilera pribatua sustatu besterik egiten ez dutenak, gure etorkizuna eta gure seme-alabena hipotekatzen dutenak. Eta eredu hori denon artean erabaki nahi dugu.

Durangaldea maite dugulako

Aupa lagunak!

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkizueke zuoi, berriztarroi; ez horrenbeste kartela zuen gustukoa izateagatik edo saria irabazi dudalako, baizik eta lehiaketa honetan parte hartzeko aukera paregabea eman didazuelako eta, une batez bederen, herriko jaiak, lagunak eta zenbait bizipen oroitzeko aukera eskaini didazuelako. Aitortu behar dizuet zuekin batera herriko jaietan egon izanaren sentsazio gozoa dastatu dudala. Beraz, espetxeak inposatzen duen monotonia irabazi eta gaintzea izan da niretzako benetako saria. Kartel bat egitea baino haratago doan ariketa bat izan da hau; elkartasun ekimen bat izan da; dispersioa eta espetxe politika gaintu dituen ekimena, eta hori izan da niretzako benetako saria. Dagoene-

ko denok ezagutzen baituzue estatu frantsesaren eta espainolaren espetxe politikaren helburua: euskal preso kolektiboa osatzen dugun kidegoa herritik urundu, deserrotzea eragin eta militante moduan deuseztatzea. Baina ekimen xume honi esker, hain zuzen ere, jaietako kartel lehiaketan parte hartzeari esker, bertan behera gelditu dira saiakera eta asmo horiek guztiak. Alde batetik, ehunka kilometrora urrundua egon arren, herrian igaro ditudalako egun batzuk, eta bestetik, batzuen gustukoa izan ez arren, euskal preso politikook jaietan ere presente egongo garelako. Ares eta bere aginduetara dauden gizon-emakumeek gure argazkiak bahitu eta desargitaraziko dituzte, gurekiko elkartasun ekimenak oztapatu eta zigortuko dituzte, baina ezin izango dute benetako erreallitatea ezkutatu, eta behin eta berriz agerian geratuko dira herri honek presoekiko duen maitasuna eta elkartasun adierazpenak.

Ez naiz oso trebea horrelako idazkiak egiten, beraz, ez naiz gehiegi luzatuko. Hala ere, bukatu aurretik gorantziak, lehendabizi, egunez egun presook pairatzen ditugun bizi-baldintza latzak eta gure kontra zuzendutako erasoak lau haizetara salatu eta lan egiten duzuen guztiontzat, traba eta kriminalizazioaren gaintetik. Jakin gurekiko adierazten duzuen elkartasuna ezinbestekoa dela guretzat, aurrera egiteko. Mila esker bene-bentan. Sari hau zuentzat da.

Bukatzeko, gorantziak ere herriko jaiak antolatzen dituzuentzat. Bereziki, jai alternatibo eta herrikoia lantzen duzuenoi. Lan gogorra bezain atsegina zuena, nahiz eta kriminalizazioaren atzaparrak ere inguruan dituzuen. Argi izan pentsamendu bakarrek herri baten alaitasuna, parranda eta borrokarako gogoekin ez dutela bukatuko. Castelloneko ziega honetatik guztiontzat animoak, eta segi aurrera, jai alternatibo koloretsu, parte-hartzaile eta herrikoia antolatzen. Eta ez ahaztu gure partez parranda ederrak botatzeaz!

Beste barik, jaso besarkadarik sentikorrena,
Gora euskal preso, iheslari eta errepresaliatu politikoen kolektiboa!

Gora Berrizko Sanpedroak!
(Testu hau Berrizko jaietako pregoiaren ostean irakurri zuten bere senideek kartel lehiaketaren sari emanaldian).

Asier Virumbrales Amenabar Albocaserreko espetxetik

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazioa



Mikel Basabe Aralar

Cid

Gaur, Euskadi Irratian, Carlos Cid izeneko lagun bati egini-ko elkarrizketaxoa entzun dut. Filologia erromanikoan lizentziaturiko eta unibertsitatean euskara eskolak ematen dituen laguna da Cid. Horraino, apartekorik ez. Bere zitasunak hasten dira jatorriaren berri izatean: Madrilen jai, Madrilen hazi eta Madrilen bizi den euskalduna da Cid. Euskaraz ere Madrilen ikasi zuen, eta hango unibertsitate batean dihardu irakasle. Azaldu du euskararekiko interesa umetan hasi zitzaioela, zer eta oportetan Portugaletara eroaten zutelako. "Hara!", pentsatu dut entzutean: "ez zuan ba Portugaleten euskaraz sekula berba ein bako lekua?". Portugaleten lehendakariak esanikoa da azkeneko hori. Hurrengo bitxia euskararekiko Cidek daukan ikuspegia da: ez da hizkuntza ikasteko gaitza. Horretan ere ez dator bat filologoa lehendakariarekin; eta horretan ere filologoak du arrazoa, ez lehendakariak. Euskaratik erdarara dagoen distantzia erdaratik euskara dagoen bera da, ez besterik.

Euskadi Irratiko elkarrizketak aurrera egin du, eta Cidi euskararen osasunaz galdetu dio Manu Etxezortuk. Zarautzen orain hiru aste egon zela erantzun dio Cidek, eta inoiz baino euskara gutxiago entzun duela. Aspaldiko gogoetan jardun dute gero esatariak eta elkarrizketatuak: ezagutzak gora egiten du, erabilerak ez, ostera. Zergatik ote den eta, batez ere, egoera hori zelan gaintu daitekeen jardun dute gero. Erantzuna nork jakin? Bada, baina, Cidek seguru dakienik: madrildarrak ez du ulertzen euskaldun zahar bi elkartzea eta gaztelaniaz aritzea bata bestearekin. Eta zuk? Ulertzen duzu?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko uztailaren 2a - 9. urtea - 380 zk.

Laguntzailea:  Bizkaiko Foru Aldundia


Honako herrietako udalak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Uztailaren 3an Durangoko Tabira Parkean

TENEMOS QUE HABLAR

Kolektibo Monstrenko konpainiak dakarkigun antzezlanak egunerokotasunaren inkomunikazio intimoaz jarduten du, umore zentzugabe eta zoroan. Noraezean dabilzan hiru tipo ebaxpe itxi eta ilun batean bizi dira... ia kalera irten ere ez dira egiten. Hirurak ere ez daude euren momentu onenean. Egoera hori hobetzen duten deskubrituko dugu Tabirako parkean.

BESTEAK

ELORRIO

>> **1960. urtean txapeldunak izan ziren Lejarazu, Azkarate eta Alvarez pilotariei omenaldia** egingo diete uztailaren 3an, 18:00etan, plazako frontoian.



IURRETA

>> Uztailaren 3an eta 4an Iurreta Txirrindulari Elkarteak ibilbideak antolatu ditu. Irteera, 08:00etan Iurretatik.

ZORNOTZA

>> **Gazteentzako jarduerak** 20:00etatik 23:00etara, uztailaren 2tik 4ra, Warner Bross park, 14 urtetik 20 urtera arteko gazteentzat, Zelaieta zentroan.

DEIAK

DURANGO

>> **Udaleku Artistiko Musikal**, uztailaren 5era arte, Bartolome Ertzilla musika eskolan. Udan ere musikaz gozatzeko.

ERAKUSKETA

BERRIZ

>> **Keramika ikastaroan egin dituzten lanen erakusketa** uztailaren 3ra arte Berrizko Kultur Etxean asteartetik ostiralera 18:30etatik 20:30era.

DURANGO

>> **Jinhee Kim** artistaren margolanen erakusketa Kukutze jatebtxean abuztura arte. Abstraktua eta arkitektura uztartzen ditu 'Tu y yo' izeneko lanean.



ELORRIO

>> Iturri kultur etxean Ferixa Nausiatarako aurkeztutako **kartelen eta argazkien erakusketa**, uztailaren 17ra arte.



ZORNOTZA

>> **Pintzelak** kultur elkartearen erakusketa, uztailaren 1etik 11ra, Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

DURANGO

>> **Kirol ikastaroak udan Landako kiroldegian**; esgrima, aerofit, spinbike, stretching, tenis, padela, aquagym eta aquabike. Hainbat egun eta prezio. Informazio gehiago www.durangokirolak.net edo 94 603 00 31 telefonoan.

JAIALDIAK

DURANGO

Uda kalean bizi

>> **'Tenemos que hablar'** antzezlanak dakarkigu Kolektibo Monstrenko konpainiak, uztailaren 3an 22:00etan, Tabirako parkean.

Euskal Harley

>> **Uztailaren 2an**, 17:00etan, izen-ematea, Landako Gunean.



19:30ean **Inaugurazioa**. 21:00etan **Afaria** Landako Gunean. 22:00etan **Rebel Rocker 69 Dj-a** (baita asteburu guztian ere). 24:00etan Pabiloiaren ibikiera, eta festak segitu dezan Alde Zaharreraino **kaleko animazioa**. **Uztailaren 3an**, 09:00etan **gosaria** musutruk, Landako Gunean. 14:00etan **Moto ibilaldiaren itzulera**. 17:00etan **Jokoak eta sari-banaketa** beteranoei. 19:00etan **banderen martxa**. Alde Zaharrean **trikipoteoagaz** amaitzeko. 21:00etan **Afaria** Landako Gunean, Eusko Labelen eskutik. 22:00etan **Argi-zurien martxa**. 23:00etan **Reverendo Parker** kontzertuan. Bukaeran, festak segitu dezan Alde



Zaharreraino **kaleko animazioa**. **Uztailaren 4an**, 09:00etan **Gosaria** musutruk Landako Gunean. 10:30ean **Moto ibilbidearen irteera**, geldialdi eta hamaiketakoarekin. Itzultzean **bazkaria** pabiloian. 13:00etan Txakoli dastaketa Landako Gunean, eta festaren amaiera. Izen ematea: 94 681 81 42 edo www.euskalharley.com web gunean.

ELORRIO

Musikaire

>> **Maria Berasarte** kantariak fado emanaldia eskainiko du, uztailaren 2an 22:30ean, Elorrioko Lourdes ikastetxeko patioan.

>> **Che & Moche** uztailak 3an plazan, 22:30ean. "Oua Umplute" lanak zuzeneko musika eta antzerkia lotzen ditu modu dibertigarri eta umoretsuan.



>> **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** pailazoek umorea dakarkigute, uztailaren 4an 19:30ean, plazan. (Euria bada, ekitaldia Arriola antzokian egingo da).



Berio-Otxoa 2010

>> **Liburutegia kalera! Bizi...letra**, bizikleta batek liburutegia hurbilduko die herritarrei, **uztailaren 2an**, 16:00etatik 20:00etara. **Uztailaren 4an**, 12:00etan **meza** Sortzez Garbiaren Basilikan. 13:30ean **Luntxa eta Kukubarre** seikotea plaza inguruan. 18:00etan **pilota partiduak** plazako frontoian. 20:00etan, Santa Anan kontzertua: **Beri-Otxoa abesbatza eta Algortako abesbatza**.

ERMUA

Elektro jaiak

>> Uztailaren 3an **Elektrojaia**: DJak, perkusionistak, audiobisualak, mala-bareak, go-goak... izango dira, Valdespina parkean, 16:00etatik aurrera.



JAIK

ABADIÑO

Gazteluko jaiak

>> **Uztailaren 3an**, 20:00etan **Txopoa ipintzea**. 20:30ean **Tortilla txapelketa eta ondoren afaria**. **Uztailaren 4an**, 11:00etan **meza santua**. 11:45ean **jan-edana**. Ondoren 12:00etan **Abadiñoko dantzariak**. arratsaldeko 18:00etan

umeentzako jolasak egongo dira.

ATXONDO

Apatako San Pedro

>> **Uztailaren 2an, XXIV. Bakailao eta Tortilla Txapelketa**. 20:30ean Tortilla eta kazolak batuko dira. **Herri-afaria** frontoian. Ondoren **Luhartz**. Gauerdian **txokolatada**.



Kontzertuak Gaztetxean (**Kilauea eta Harrikada**). **Uztailaren 3an**, 11:00etan **Umeentzako tailerrak** Gaztetxean. 14:30ean **Koadriren arteko bazkaria** frontoian, Paella erraldoia. Ondoren, **monologo eta kale animazioa**. 22:00etan, **Arantza eta Pantxo** (Rantxerak, korridoak, tangoak...) plazan. 24:00etan **Su artifizialak** (futbito zelaian). **Kalejira** 'Jaietan ere, preso eta iheslariak etxera!!'. **Uztailaren 4an**, 17:00etan **Igel txapelketa** Itziar tabernan. 18:00etan **Txan magoa** umeentzako gazte-txean. 19:30ean **Txopoa bota eta saiheski jana** plazan. 22:00etan **Txan magoa** nagusientzako Gaztetxean. Ondoren **'Jaiak gogoratzu' argazki emanaldia**.



BERRIZ

San Pedro Santa Isabel

>> **Uztailaren 2an**, 12:00 **Meza** nagusia eta **Dantzari dantza**. 14:00etan **jubilatuentzat bazkaria**. Bazkalostean **musika** Kiroldegian. 18:00etan Txosnagunean **umeentzako erromeria** paregabera 'Parranda' Deabru Beltzak taldeagaz. 19:00etan **Udako Pilota Txapelketaren finalak**. 20:00etan **Dantzari Dantza**. **Tortilla lehiaketa** Udaletxeko lorategian. 22:30 **Drindots** musika taldeagaz dantzaldia Elizondo Plazan. 23:00etan **Su artifizialak**. 23:20an **Drindots** musika taldeagaz dantzaldia Elizondo Plazan.



uztaileko agenda



Uztailak 3-4-10-11 • Txirrindulari elkarteak
08:00 Ibilbide ezberdinak (72-126km)

Uztailak 3-4 • Amatzako jai batzordea
3an, 19:00 Donien Atxaren igoera. 19:30 Dantzarien azken entsegua
20:30 Tortilla txapelketa (tortilen aurkezpena)
21:00 Bertsolari eta trikitilarietako afari herrikoia txapelketako tortilekin
4an, 11:00 Trikitilarietako kalejira. 11:30 Meza nagusia
12:00 Amatzako auzoko dantzariak. Trikitilarietako luntxa
15:00 Bazkari herrikoia. Ondoren karta lehiaketa, igel txapelketa, umeentzako jokoak

Uztailak 6 • Iurretako Herri Biblioteka
10:00etatik 13:00etara Bizi-Letra Irakurzaletasuna bultzatzeko maratona

Uztailak 8 • San Andres auzoko jaiak
Santa Isabel eguna:
11:45 Txupinazoa. 12:00 Meza Santua. 13:00 Luntxa

Uztailak 10 • Arriandin San Kristobal eguna
Azkorako baselizan:
13:00 Meza Santua. Jarraian bazkari herrikoia, paella erraldoia

Uztailak 16 • Santa Mañako jaiak
21:00 Santa Mañako I. poker txapelketa

IURRETAKO UDALA

Txosnen egitarauaren barruan;
02:00etan **Karaoke Punk!**

ERMUA

San Lorentzo auzoko jaiak

» Uztailak 8tik 11ra **haurrentzako jokoak, herri-bazkariak, kale ikuskizunak, Erdi Aroko Azoka, erromeriak...**



IURRETA

Amatzako jaiak

» Uztailaren 8an 11:00etan **Trikitilariekin kalejira**. 11:30ean **Meza** nagusia. 12:00etan **Amatza** auzoko **dantzariak eta trikitilariekin luntxa**. 15:00etan **herri-bazkaria**. Ondoren **karta lehiaketa, igel txapelketa eta umeentzako jokoak**.

San Andres auzoko jaiak

» 11:45ean **txupinazoa**. 12:00etan **meza**. 13:00etan **luntxa**.

ZALDIBAR

Udako San Andres jaiak

» Uztailaren 2, 3 eta 4an **Eskualdeko XX. Areto-futbol Txapelketa** kiroldegian. **Uztailaren 3an**, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. **Argazki erakusketa** udaletxe zaharrean. Iñigo Bernedoren lanak.



16:00etan Junior mailako 1. eta 2. urteko **txirrindularien lasterketa**. 16:30ean **Durangaldeko pilota eskolen arteko finala** Olazar pilotalekuan. **Uztailaren 4an**, 08:30etik 14:30era **XXVII. Argazki Rallya**. 10:00etan

Bizkaiko eskolen arteko txirrindulari lasterketa. 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara **Argazki erakusketa** udaletxe zaharrean, Iñigo Bernedoren lanak. 16:00etan **Kadete mailako Bizkaiko txirrindulari txapelketa, taldeka**. **Uztailaren 7an**, 10:00etatik 14:00etara **Bizi Letra maratonia**. Irteera: liburutegitik. 19:00etan herriko jendeak **donien-atxa ipiniko du**. 19:15ean **Jaietako kartelen lehiaketako sari-banaketa** Udaletxean. 19:30ean jaien hasiera **iragartzeko**, Udaletxetik **txaplogua** jaurtiko du Ane Alberdik, Euskadiko



arku tiro txapelketako txapeldunak, aretoko eta atari zabaleko modalitatean. Gero **kalejira Korral elkarteko trikitilariekin eta buruhandiek**. 19:30ean **Txaranga**. 20:00etan **Odoloste-jana** Bekoetxe kalean. 23:00etan **herriko taldeekin, rock kontzertuak** Txosnagunean.

LITERATURA

IURRETA

» **Bizi letra** irakurzaletasuna bultzatzeko maratonia, uztailaren 6an, 10:00etatik 13:00etara,



lurretako Herri Liburutegian eta Aita San Miguel Plazan.

ZALDIBAR

» **Bizi letra egunero irakurri**. Herrien arteko irakur-maratonia uztailaren 7an Zaldibarretik igaroko da, 10:00etatik 14:00etara. Irteera liburutegian izango da. Bizikleta egokitu bat 15 egunetan zehar 30 herritan zehar ibiliko da irakurketa "erregai" moduan izanik. Denon artean, 365 km egitea lortzea da



kontua, eta punturik gehien batzen duten bi herriak izango dira lehiaketaren irabazle.



Uztailaren 2an, 22:30ean Elorrioko Lourdesen ikastetxeko patioan

MARIA BERASARTE

Donostiako abeslaria gaztea bada ere, ibilbide musikal zabala du dagoeneko. Maria Berasarte fado kantaldia eskainiko digu Musikaire jaialdiaren barruan. Izan ere, gaztetan fadoagaz eta Portugalegaz maitemindu, eta bertara joan zen bizitzera. Bere musika entzunez Lisboa bidaiatzeko aukera eskaintzen digu, bertako kanta tradizionalak aurkeztuko dizkigu-eta, gitarra, kontrabaxuak, akordeoiak eta perkusioak lagunduta.

ZORNOTZA

» **Bizi letra egunero irakurri**. Uztailaren 3an 16:00etatik 20:00etara Zelaieta Parkean.

MUSIKA

DURANGO

» **Fatou Guewel (Mbalax senegal)** + **Mass Ndiaye** kontzertuak ikusteko aukera, uztailaren 3an, 22:00etan Plateruenean.



ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Eclipse

Zuzendaria: **David Slade**
barikua 2: 19:00 / 22:00
zapateria 3: 19:30 / 22:30
domeka 4: 19:30 / 22:30
astelehena 5: 19:00 / 22:00
martitzena 6: 20:00



Umeentzako zinea

Marmaduke

Zuzendaria: **Tom Dey**
zapateria 3: 17:00
domeka 4: 17:00



BOTIKAK

- Barikua, 2**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
- Zapateria, 3**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
- 09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- 09:00-13:30 (*14:00)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
- Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
- SanRoma / Balenciaga/ Campillo
- Domeka, 4**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
- Astelehena, 5**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
- Martitzena, 6**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- 09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
- Eguaztena, 7**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
- Eguena, 8**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
- 09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
- DYA94 620 28 00**
- Gurutze Gorria94 681 09 49**
- Osakidetza94 600 72 00**
- Ertzaintza94 466 93 00**
- Suhiltzaileak112**
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
- Durango94 681 02 32
- Bizkaibus94 448 40 80
- Pesa902 10 12 10
- Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
- Matiena606 459 988
- Durango Geltokia.....946 811 001
- Goco Tour946 202 860
- Tele Taxi944 102 121
- Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
- Elorrio Geltokia946 820 040
- J.L. Uriarte670 402 002
- I. Estebez670 678 273
- M Galeano.....946 582 854
- Iurreta946 201 565
- Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

- Abadiño94 621 55 30
- Atxondo94 682 10 09
- Berriz94 682 45 84
- Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
- Garai94 681 63 93
- Iurreta94 620 12 00
- Izurtza94 681 35 48
- Mallabia943 17 14 61
- Mañaria94 681 89 98
- Otxandio945 45 00 20
- Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

- Abadiño94 621 55 33
- Berriz94 682 40 36
- Durango94 603 00 10
- Elorrio94 682 02 18
- Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

- Arriola94 658 31 92
- San Agustin94 603 00 21
- Zornotza Aretoa94 630 01 68
- Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txanporta KE94 620 36 47
- Errota KE94 466 94 16
- Gorabide94 681 24 35
- Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
- Nekazal bulegoa94 681 15 20
- Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
- Butanoa (UME).....94 681 08 77
- Araztegia94 620 28 00
- Foru Ogasuna.....94 681 07 42
- INEM Durango94 681 12 96
- Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
- Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

- Igerilekua
- Astola94 620 29 29
- Igerilekua
- Atxondo94 623 14 38
- Berriz94 682 43 74
- Durango (Landako).....94 621 51 30
- Durango (Tabira)94 621 51 50
- Elorrio94 682 10 27
- Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 17** **30° BARIKUA** ☁️
- Goizean erdi mailako hodeiek zeruari kolore zurixka emango diote. Arratsaldean, haizea iparraldera aldatu eta zerua ilunduz joango da; hodei multzo trinkoek zaparradak utziko dituzte.
- 14** **21° ZAPATUA** ☁️
- Tarteka zaparradak botako ditu eta termometroak nabarmen egingo du behera. Arratsaldeak aurrera egin ahala, gero eta ahulagoak eta tartekatukoagoak izango dira zaparradak. Iparraldeko haizea izango dugu.
- 14** **26° DOMEKA** ☁️
- 12** **24° ASTELEHENA** ☀️
- 12** **23° MARTITZENA** ☁️

Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21

Konfiantzaren balioa



zure neurrira egindako konfiantzazko irtenbideak

SAN FAUSTO Erref. 002-1119
•131.621€ (21,8 milioi)



3 logela, komuna, sukalde handia eta despentsa. Eguzkitsua. Orientazio ona. GAZTEENTZAKO AUKERA ONA!

KIRIKIÑO Erref. 002-895
•160.000€ (26,6 milioi)




3 logela. Orientazio ona. SUBENTZIO-NATUTAKO HIPOTEKA. 337/hileko (lehen 3 urteetan). KONTSULTATU.

ZALDIBAR Erref. 002-1087
•156.263€ (26 milioi)



Euskalherria zonaldean. 3 logela bikoitz, sukalde handia eta igogailua. EZ GALDU AUKERA HAU!

DURANGO Erref. 002-1107
•173.692€ (28,8 milioi)



Berriztatua. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. Trastelekua. ZATOZ IKUSTERA!

BERRIZ Erref. 002-1135
•173.091€ (28,8 milioi)



Berriztatua. 2 logela, sukalde handia despentsarekin eta komuna. Garaje itxia aukeran. BIKOTEENDAKO EGOKIA!

MATIENA Erref. 002-1093
•179.702€ (29,8 milioi)



Erdialdean kokatua. Guztiz berriztuta dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. EZIN EGOKIAGO A LEHEN BIZILEKUA IZATEKO!

TABIRA Eralkuntza berria
•192.000€ (31,9 milioi)



Azkeneko apartamentua, zonalde pribilegiatuan. Argitsua. Lehen mailako materialak. Ganbara. EZ GALDU AUKERA HAU!

DURANGO Erref. 002-870
•192.323€ (32 milioi)



Eralkuntza berria. Beheko solairuak. 2 logela, 2 komun eta sukalde handia. Estreinatzeko. AUKERA PAREGABEA!

ELORRIO Erref. 002-1126
•216.364€ (36 milioi)



Orientazio ona. Eguzkitsua. 3 logela bikoitz, sukalde-egongela handia eta komuna. Kristal dobleko PVCko leihoak eta berogailua. Trastelekua.

DURANGO Erref. 002-1114
•233.793€ (38,8 milioi)



3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berogailua eta kristal bikoitzeko PVCko leihoak. Teilatua eta etxaurrea konpondua. Igogailua. Eguzkitsua. AUKERA ONA! EZIN EGOKIAGO A LEHEN BIZILEKUA IZATEKO!

DURANGO Erref. 002-1113
•246.414€ (41 milioi)



3 logela bikoitz, egongela handia, sukaldea despentsarekin eta komuna. Berogailua, igogailua eta leihoak aldatuta.

DURANGO Erref. 002-831
•270.455€ (45 milioi)



Landako inguruan kokatua. 3 logela, komuna eta bainugela. Garajea eta ganbara. AUKERA ONA!

SAN INAZIO Erref. 002-949
•288.486€ (48 milioi)



3 logela bikoitz eta 2 komun. Orientazio ona. Garajea eta trastelekua. Erdi berriztatua. EZ GALDU AUKERA HAU!

PLATERUEN PLAZA Erref. 002-719
•294.495€ (49 milioi)




12 urte dituen etxebizitza. 100 m², 4 logela, 3 komun eta 22 m²-ko egongela. Garajea eta trastelekua. EZ GALDU AUKERA HAU!

DURANGO Erref. 002-783
•318.536€ (53 milioi)



Pisu altua igogailuarekin. Orientazio ona. 3 logela, 2 komun eta egongela handia ikuspegiekin. Berriztatua. Garajea eta trastelekua. GUSTATUKO ZAIZU!

ASKATASUN ETORB. Erref. 002-1133
•377.435€ (62,8 milioi)



Berriztatua. Pisu altua igogailuarekin. 3 logela bikoitz, egongela handia balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta ganbara. ZURE ETXEBIZITZA IZAN DAITEKE!

MURUETA-TORRE Erref. 002-839
•390.658€ (65 milioi)




8 urte dituen etxebizitza. 3 logela, horietariko bat suite. 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta 20 m²-ko egongela. Garajea eta trastelekua. NEGOZIAGARRIA!

EZKURDI Erref. 002-1123
•390.657€ (65 milioi)



Pisu altua igogailuarekin. 115 m². 4 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Ganbara.

TABIRA Erref. 002-1041
•411.693€ (68,5 milioi)



10 urte dituen duplexa. Orientazio ona. 3 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia balkoiarekin eta sukaldea. Garajea eta trastelekua.

DURANGO

2 LOGELA, IGOGAILUA, GARAJEA ETA GANBARA DITUZTEN ETXEBIZITZEN BILA GABILTZA.

EROSLEA DAUKAGU!



Konfiantzaren balioa




zure etxea saltzeko edo erosteko...

Zertifikatutako Bizkaiko lehen inbiliaria sarea



KIROLAK >



Elorrioko txapeldunei omenaldia

Zapatuan, 18:00etan, Hilario Azkarate, Felipe Lejarazu eta Jose Antonio Álvarez pilotari ohiak omenduko dituzte Elorrioko plazako frontoian. Orain 50 urte Elorriorentzat hiru txapel irabazi zituztela gogoratuko dute ekitaldian.

Berrio-Otxoa pilota eskolak eta Elorrioko Udalak elkarlanean antolatuko dute ekimena. Ekitaldi ofiziala 18:00etan bada ere, aurretik, 17:00ak inguruan hasita, gaztetxoek partiduak izango dira ikusgai, izarrak izan zirenei eurak ere dir-dir egiteko asmoa daukatela erakusteko. Lehenengo partiduan Peralta eta Landaburu Alzerrekaren eta Egurenen kontra ariko dira; bigarrenaren Peñak eta Sagastak Solozabalen eta Azkarragaurizarren aurka jokatu dute.

Ondoren, afizionatu mailako partidu bi ikusteko aukera egongo da: Salaberriak eta Castillok Beitia eta Uriarte izango dituzte aurkari; ondoren Mendizabalek eta Kantxok Atxotegiren eta Uzkudunen kontra jardungo dute. Partidu bien artean egingo dute omenaldia. Berrio-Otxoa pilota eskolaren partez, txapel bana jasoko dute. Udaltxeak eta Euskal Herriko Pilota Federakuntzak oroigarri bana emango diete.

Hiru txapeldun

Pilotari dagokionez, 1960a urte magikoa izan zen Elorriorentzat. Izan ere, 1960an Espainiako Txapelketako hiru mailatan txapela jantzi zuten; Hilario Azkaratek lehenengo mailakoa irabazi zuen, Felipe Lejarazuk bigarren

mailakoa eta Jose Antonio Álvarezek afizionatu mailakoa. Gainera, kuriositate moduan aipatu beharrekoa da hiru pilotariak Erreka kalean bizi zirela sasoi hartan.

Gerora Hilario Azkaratek, Ogetari 22-19 irabazi zion hartaz gainera, buruz buruko beste bost txapel ere bereganatuko zituen: 1961ean Etxabe Iaren, 1962an eta 1964an Ariño Iaren, eta 1965an eta 1967ean Atano X.aren kontra. J.D.

Azkarate, Lejarazu eta Álvarez pilotari ohiek txapel bana irabazi zuten 1960an

20 Lejarreta eta Zorrilla txapeldun

Iñaki Lejarretak Espainiako Opena irabazi du mendi bizikletan, eta Bizkaia-Durango taldeko Dorleta Zorrilla Espainiako txapeldun izan da 23 urtez azpikoan.

21 Carlos Garcari elkarrizketa

Carlos Garcia mallabitarrak 12 urte eman ditu Bizkaiko Pilota Federazioan eskualdeko ordezkari legez. Kargua uztea erabaki du orain, eta bere ibilbideari erreposoa emateko astia hartu du.



Orbea Racing Team taldeko Iñaki Lejarreta eta Ruben Ruzafa lehenengo eta bigarren sailkatu ziren.

Espainiako Opena irabazi du Iñaki Lejarreta berriztarrak

Orbea Racing Teameko Ruben Ruzafa taldekidea geratu da bigarren

Espainiako Superprestigio Massi Opena irabazi du mendiko bizikletan Iñaki Lejarretak. Openeko sei lasterketatatik hiru irabazi ditu (Asturias, Andaluzia eta Gironakoak) eta gainerakoetan bigarren geratu da.

Openeko sei lasterketatik hiru irabazi ditu; besteetan bigarren egin du

Joan zen asteburuan, Andorrako Port Ainé-n jokatu zuten azkeneko lasterketa, eta Lejarretak Opena dagoeneko poltsikoan zuenez, Ruben Ruzafa taldekideari laguntzen saiatu zen. Bien arteko lankidetzak bere fruituak eman zituen, eta Ruzafak irabazi zuen 2.400 metroko altueran korritu zuten lasterketa;

Lejarreta bigarren geratu zen. Ondorioz, sailkapen nagusian lehenengo bi postuetan geratu dira Orbea Racing Teameko txirrindulariak. Carlos Coloma geratu da hirugarren.

Andorrako lasterketan goitik behera agindu zuten. Hirugarren itzuliaren ondoren, Lejarreta atzean geratu zen, orain aste bi izandako eroriko batetik guztiz errekuiperatu barik zegoelako. Hala ere, bigarren geratzea lortu zuen.

Hiru aste barru Munduko Kopa jokatu du, eta Lejarretak errekuiperazio prozesuari ekin dio lasterketa horretarako sasoirik onenean egoteko.

Zorrilla ere txapeldun

Joandakoa asteburu biribila izan da txirrindularitzari dagokionez. Bizkaia-Durango taldeko Dorleta Zorrilla Espainiako txapeldun geratu da 23 urtez azpiko kategorian. Albaceten jokatu

txapelketan sprintean erabaki zen garailea, eta Zorrillak bosgarren amaitu zuen; bera izan zen 23 urtez azpikoetan lehenengoa.

Bestalde, Arabako Rivabellosan kadete mailako Euskadiko Txapelketa jokatu zuten, eta Durangoko Beste Alde taldeko Alain Ramirezek jantzi zuen txapela. Kadete mailako lasterketek ez dute etenik izango asteburuan. Domekan, Elorriotik Zaldibarrera bitartean, taldekako Euskadiko Txapelketa jokatu du, 14,6 kilometroko erlojupekoan. Lasterketa 16:00etan hasiko da Elorrioren. ■J.D.

Dorleta Zorrillak ere Espainiako Txapelketa irabazi du 23 urtez azpikoan

Aitor Zabaleta izan zen azkarrena Urkiolako Igoeran

Aritz Egozkue eta Ruben Nogueiras sailkatu ziren bigarren eta hirugarren

Faborito nagusia zen Aitor Zabaleta bergararra, eta pronostikoak bete egin ziren. Zabaletak lehenengo txanda bakarrik baliatu ahal izan zuen garaipena eskuratzeko. Izan ere, bigarreneko autoko sentsore elektronikoko batek arazoa eman zion, eta ez zen irten.

Bigarren Aritz Egozkue nafarra izan zen, motor berria estreinatuz, eta hirugarren Ruben Nogueiras. Euren ondoren Durangalde Racing taldeko

Imanol Lakar eta Iñigo Olabegogekoetxea sartu ziren, bizkaitar onenak izanik, gainera.

Turismoetan, parekotasun handia egon zen Aitor Ramirez, Manolo Cabo eta Lebeitiren artean. Lehen txandan hiru hamarrekoren arteko diferentzia txikia zegoen hiruren artean. Bigarrenean hiru segundoko tartea atera zion Ramirezek Cabori, eta Lebeitik denbora gehiago galdu zuen, pistatik atera zelako une batean. ■J.D.



Aitor Zabaleta BMW Lola barquetaren barruan.

Oihana Azkorbebeitia garaile Hiru Handietan

Abadiñarrak 14.47.28-ko denbora behar izan zuen Gorbea, Anboto eta Aizkorri gainditzeko

Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak 14.47.28-ko denbora egin zuen 100 kilometroak betetzeko. Zapatuko lasterketan, Gorbea, Anboto eta Aizkorri izan zituzten tartean.

Gogegin hasi zen lasterketa barikutik zapaturako gauerdian, 24:00etan hain zuzen ere, eta zapatuan zehar lasterkariak Araiako helmugan sartzen joan ziren. Abadiñarrak 14 ordu, 47 minutu eta 28 segundo behar izan zituen 100

kilometro horiek betetzeko. Egunez eguzkiak bete-betean jo zuen, eta "lasterketa gogorra" izan zela aitortu du abadiñarrak. Leire Iruretagoiena izan zen bigarren, eta Sonia Regueiro hirugarren.

Gizonetan Etxeberria onena

Gizonetan Pedro Etxeberriak jantzi zuen txapela, 11.58.10 denbora markatuz. Oier Ibarbia eta Joxe Luis Albizurik osatu zuten podiuma. ■J.D.

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel.-Faxa: 94 623 18 03

HONDA
STIHL
SAME
BCS
VIKING
pasquoli

“Frontoian erratza pasatzea da 12 urteotan egin ez dudana lan bakarra”

Carlos Garcia (Mallabia, 51 urte) 12 urtez izan da Bizkaiko Pilota Federazioko ordezkaria Durangaldean. Hamaika buruhauste sortu eta beste hainbeste momentu on ekarri dizkion kargua oraintsu utzi du, ziklo bat amaitu dela iritzita.

Zenbat pilota eskola egon dira zure kargu Federazioko ordezkari izan zaren denboran?

Federazioak Bizkaia lau eremutan banatuta dauka: Uribe Kosta, Arratia-Nervion, Enkarterriak eta Durangaldea. Beraz, nire eremua Trabakutik beste aldera ere heltzen da. Ni hasi nintzenen 10 pilota eskola zeuden eremu horretan; orain 13 daude: Markina, Lekeitio eta Lea-Ibarra sartu dira.

Sarritan batzen zarete lau eskualdeetako ordezkariok?

Astelehenero. Gure eremuan dauden pilota eskolen gorabeherak batu eta eztabaidatzen ditugu; zelanbait esateko, federazioaren jarraibideak finkatzen ditugu.

“Eskualdeko txapelketa hasi egin da; 100 pilotaritik 450era pasatu gara”

1998an hartu zenuen kargua. Eskualdean zelako garapena izan du pilotak denbora horretan guztian?

Eroan dugun bideagaz pozik gaude. Orain ni hasi nintzenen baino bi bider gaztetxo gehiagok jokatzeko dute asteburuetan, irailan hasi eta maiatzean amaitzen den kadeteen mailara arteko txapelketan. Beti ere, eskola kirolari buruz gabiltza. Lehenago herri bakoitzak 10 bat pilotari aurkezten zituen, eta orain herri batzuek 40tik gora aurkezten dituzte. Hasi nintzenen 100 bat gaztetxo bazebiltzan, orain 450 bat dabiltza. Txapelketa zabaltea onuragarria izan zen.



Gaztetxo gehiagori lehiatzeko aukera eman zenieten.

Bai, eta pilota eskola batzuk berreskuratu genituen txapelketarako; Ermukoa, esaterako. Herri batzuetan jaiotze tasa jaitsi izana arazoa izan da, eta hala ere hor darraite lanean Mañaria, Atxondo eta Mallabia lako herrietan. Bolondres lana egiten dutenekin zein alkate guztiekin esker oneko gaude.

Orain arteko beharrari buruz, zer balantze egingo zenuke?

Eskualdea lau eremuetan zeharrena da eskola kiroleko txapelketa antolatzen; 27 aldi daramatzagu. Profesionaletara heldu diren pilotari guztiei erreparatuta, nabarmena da egindako lan ona: Berasaluze, Antxia, Amantegi, Urberuaga, Uriarte...

Zuen eremuan sartzen diren pilota eskolek irakasteko darabilten metodologian eragiten ere saiatzen zarete?

Denboragaz konturatu gara bolondres lana, esker onekoa izan arren, ez dela eraginkorra. Adituak eta prestakuntza duten lagunak behar dira. Gaztetxoekin tratatzen jakin behar da. Ildo horretako kurtsoak egin izan dira, eta gura duenak goi-mailako ikasketak egin ditzake Gasteizen. Durangaldean hainbat monitore dago. Hainbaten, Mallabia izango zen lehenengoa Unai Martinegaz.

“Orain pilota eskola gehienek adituak diren monitoreak dituzte”



Zelan daude gainerako herriak?

Apurka-apurka eredu hori hartzen joan dira. Orain gehienek monitore bat daukate, eta herri handienek bi ere bai. Batzuk tituludunak dira eta beste batzuk ez, baina denak dira pilota munda ondo ezagutzen dutenak.

Zer erronka daukazue etorkizunari begira?

Benjaminetan daukagun arazo nabarmena, gerora beste maila batzuetara zabalduko dena, geroago eta pilotari gutxiago daudela da, jaiotzak gutxitu direlako azken bost urteotan. Beste zonaldeetan legez, hemen ere arazo bihurtu da. 13 herritatik zazpi-zortzi benjaminetan bikoterik aurkeztu ezinik ibili dira.

12 urte horietako zer oroitzapen gordeko duzu?

Jende asko ezagutu dut, eta arazoak mahai baten eztabaidatu eta konpontzeko borondatea azpimarratuko nuke. Esan beharrekoak mahaian esan dira, eta batzarretatik erabakiak hartuta irten izan dugu, beti denen gus-tukoak izan ez arren.

Eta zer arantza geratuko zaizu?

Penarik bat ere ez. Baina bat ipintzekotan, momentu batzuetan, txapelketak-eta antolatzerako orduan, laguntza apur bat gehiago eskertuko nukeen. Nik

lortzen nituen garaikurrak, kartela egiten nituen, bestelako hamaika lan... Erratza ez dut pasatu pilotalekuan; horixe izango da egin ez dudana lan bakarra. Baina egindakoa pozik egin dut, asko gustatzen zitzaidalako.

Zergatik erabaki duzu kargua uztea?

27 urtetatik 12tan neu egon naiz Bizkaiko ordezkari, eta ziklo bat osatu dudala uste dut. Orain Mallabiko pilota eskolan eta Biharko Izarrak txapelketan gehiago zentratuko naiz. Nire aurretik ibili zirenak ere gogoratu gura ditut: Mikel Berasaluze, Felix Uribarri, Agustin Solozabal, Rikardo Altube, Serafin Ibarra eta Joseba Irabazal.

Oier Jaio atxondarrak ordezkatu zaitu.

Pilotazale amorratua da, eta badaki zer egin behar duen. Batere zorterik eta laguntzarik badu lan ona egingo du. ■ J.D.

“Jaio pilotazale amorratua da, eta laguntzen badiote lan ona egingo du”

